

hh
hik hasi

Helle Heckmanni elkarrizketa
Arte tertuliak Gasteizko Sansomendin
Inauterietako ospakizunak birpentsatzen
Yoga eskolan
Zer da Eusle ekimen pedagogikoa?
Eranafarroa.eus
Unax Egiguren eta Intza Casamajou

525



HIZKUNTZA PROIEKTUAK

EUSKARA ESKURA!

A1

A2

B1

B2

C1



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ARGITALETXEA

elkar

_Hizkuntzak

www.elkarhizkuntzak.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 8

HIZKUNTZA PROIEKTUAK

Helburu nagusia ikasle euskaldun eleaniztunak izatea bada, oso garrantzitsua da eskoletan hizkuntza ereduaz gain, hizkuntza proiektua izatea. Hizkuntza proiektuak integrala izan behar du. Txosten hutsa baino gehiago da, eta ikastetxea eraldatzeko aukera emango digun tresna ere izan liteke.

ELKARRIZKETA / 14

HELLE HECKMANN

Mundu osoan erreferentziazko pertsona bilakatu da Helle Heckmann danimarkarra haurtzaroari dagokionez eta mezu interesgarriak eta sendoak ditu gurasoentzat, hezitzaileentzat eta gizartearentzat. **Hik Hasiren** bitartez helarazi nahi izan dizkie euskaldunei mezu horiek, haurtzaroaren gainean filtrorik gabeko argazkia eginez.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2023-02-03).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Aurrematrikulazio garaiko tentsioa

8 GAI NAGUSIA

Hizkuntza proiektuak

14 ELKARRIZKETA

HELLE HECKMANN

"Munduko lanik inportanteena haurtzaroa ona izango dela ziurtatzea da"

20 ESPERIENTZIAK I

Eta artea mintzagai bilakatzen da

24 ESPERIENTZIAK II

Inauterietako ospakizunak birpentsatzen

28 EKARPENAK I

Heriotzaren pedagogia hezkuntzan txertatzearen aldeko apustua

32 EKARPENAK II

Francesc Colomé: "Aldaketek nahasmendua dakarte, baina ordaindu beharreko prezioa da"

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Yoga eskolan

36 GALDEIDAZU

Zer da Eusle?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Eranafarroa.eus'

42 ATZEKO ATETIK

Unax Eiguren eta Intza Casamajou

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana euskaraz



Aurrematrikulazio garaiko tentsioa

editoriala

AURREMATRIKULAZIO GARAIAK AGERIAN JARTZEN DU IKASTETXEEN ARTEKO KONPETENTZIA. EZINEGONA ETA TENTSIOA SORTZEN BALDIN BADU, ZERGATIK EZ SAIATU ALDATZEN GUZTION ONGIAREN IDEIA GARATUZ?



Aurrematrikulazio garaian gaude, horrek dakarren guztiarekin: irratian, egunkarrietan eta aldizkarrietan iragarkiak, autobus geltokietan horma-irudiak... Mugimendua bada. Herri eta hiri batzuetan egoera lasaia izango da, eta beste batzuetan, berriz, urteroko lehia piztuko da; lehiakortasuna baitago muinean, nork zenbat ume bereganatu.

Ez da erraza, jakina. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua eta misioa defendatzea zilegi da; hezkuntza zerbitzua eskaintzen jarraitzeko nahia edukitzea zilegi da; haur eta gazteei ahalik eta ikas-ibilbide arrakastatsuen eta egokituena eskaintzeko anbizioa edukitzea zilegi da; eta familien beharrei erantzuteko eskaintzak egitea zilegi da.

Ikastetxeen titulartasunean sartu gabe —horrez gairikoa konpetentzia ere bai baitago sare bereko ikastetxeen artean—, beste ariketa bat egin daiteke, jaiotze-tasa behera doala ikusirik, lehiakortasuna areagotzeko arriskua handitu egin baitaiteke. Urtarrileko zenbakiko elkarriketa nagusian Juanjo Falcó Lleidako udaleko alkatetzako aholkulariak zioen konpetentzia gairikoa egin behar dela. Nola? Pedagogia asko eginez. Ikastetxeei guztion ongiaren ideia ikusaraztea dela bidea zioen. Lehiakortasunak segregazioa dakarrela ikusaraztea eta herria-

rentzat eta herrialdearentzat hori txarra dela jabeaztea. Ikuspegi hori edukitzeko, ingurua eta herria betaurreko horiekin ikusteko, zuzendaritzetan buruz ongi jantzitako jendea behar dela zioen. Zuzendariez gain, beste batzuk gehitzea ere gaizki ez: irakasleak eta gurasoak.

Irudika dezagun une batez bi eskola dituen herri bat, non Gabonak elkarrekin ospatzen dituzten, Santa Ageda eskean elkarrekin makilak astintzen dituzten eta inauterietako festa elkarrekin egiten duten. Eskolaz kanpoko jarduerak udaletik eskaintzen eta koordinatzen diren herria dela eta eskola bietako umeak eta gazteak nahasten direla. Otsaila iristean ez dutela aurrematrikulazio kanpainarik egiten, udala arduratzen delako ikastetxe biei buruzko informazioa helarazten. Sikiera, beste herrietan gorpuzten den tentsiorik ez litzateke egongo, eta ez da gutxi.

Errealitatetik urrun dagoen egoera da, gaur; bihar, akaso ez. Lehiakortasunak sortzen duen har txar horretatik libratzeko aukera emanen luke. Jakina, baliabideak eta zuzenketa neurri ugari beharko dira, eta baita mehatxu izan daitekeena indargune bihurtzeko irudimena ere. Baina hasteko, aurrena, begirada aldaketa eta buruz ongi jantzitako jendea behar da, Falcó dioen moduan. Eta hori norberaren eta taldearen esku dago.

“Badira eskuin kutsuko eta ezker usteko sektoreak, ikastola kontzeptu modura, proiektu, erakunde eta mugimendu modura desagerrarazteko jokoan ari direnak”

Antton Izagirre

HILEKO IRUDIA





AZTERKETAK EUSKARAZ KOLEKTIBOA SARITU DU ARGIAK

Urteko kanpaina onenaren Argia Saria Azterketak Euskaraz batzordeak jaso du aurten. Urtarrilaren 27an Usurbilgo Atxega jauregian egin zen sari banaketan, brebeta eta baxoa euskaraz egiteko eskubidearen aldeko borrokan egindako lana azpimarratu nahi izan zuen Argiak: “Ipar Euskal Herriko ikasleen eta irakasleen borroka herrigintzak eta euskalgintzak beharko duen belaunaldi berriarentzat sekulako eskola delako, eta gazte eta helduek elkarrekin hamaika ekintza egiten dituztelako eman diegu saria”.

Mañolo Espellet irakasleak, eta Araitx Etxegarai Arakama eta Maddalen Harispuru ikasleek jaso zuten saria Azterketak Euskaraz kolektiboko ikasleen, irakasleen eta gurasoen izenean. Espelletek, udaberriko mobilizazio erraldoian parte hartzeko gonbitea egin zuen: “Gure ikasleen eskubideak urratuak dira eta horrekin batera euskaldun guzien eskubideak dira zangopilatuak. Udaberrirako mobilizazio erraldoia prestatzen ari gara eta zazpi probintzietako euskaltzale guzien sostengua beharko dugu. Beraz, adi egon!”.

Argazkia: Dani Blanco

Usurbil, 2023ko urtarrilaren 27an



“Jauzirako prest” izenburupean, ezagutzaren unibertsalizaziori buruzko jardunaldiak egin zituen Euskaigintzaren Kontseiluak Gasteizen, joan den azaroan, eta, besteak beste, ikastetxeetako hizkuntza proiektuak izan zituzten ahotan. Xede nagusia ikasle euskaldun eleaniztunak izatea baldin bada, berebiziko garrantzia du eskoletan, hizkuntza ereduaz gain, hizkuntza proiektua izateak. Hainbat alderdi jaso behar ditu hizkuntza proiektuak, horien artean hizkuntzaren trataerari dagokionez ikastetxeak egingo dituen hautuak. Ikastetxeak berak bilduko ditu irakasten dituen hizkuntzekin lortu nahi dituen helburuak —kasu honetan, ikasle euskaldun eleaniztunak—, landu nahi dituen konpetentziak, erabiliko duen metodologia edota hizkuntzen ikuspegia, eta ikastetxeak erabakiko du erabiliko dituen tresnak zein bitartekoak nola ebaluatuko dituen ere. Hizkuntza proiektuak integrala izan behar du eta txosten hutsa baino gehiago da.

GAIA: HIZKUNTZA PROIEKTUAK

Ikastetxea eraldatzeko aukera

Zer izan behar dugu buruan hizkuntza proiektuaz ari garenean? Ikasle euskaldun eleaniztunak helburu, nola garatu hizkuntza proiektuak? Galdera horiei erantzun zien Karmele Perez Lizarralde, *Jauzirako prest* izeneko jardunaldietan eskaini zuen hitzaldian. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (Huhezi) irakaslea, Miker ikerketa taldeko kidea eta Etengabeko Prestakuntzako zuzendaria da Perez, eta eskarmentu handia du hizkuntza proiektuen arloan. Hizkuntza proiektuak garatzeko, aholkularitza lanetan aritua da hainbat ikastetxetan.

Eskolak hizkuntzaren arloan ematen digun aukera baliatu beharra azpimarratu zuen Perezek: “Eskola gune pribilegiatua da, bertan elkartzen dira haur eta familia guztiak, eta hizkuntzei dagokien aniztasun eder hori aprobetxatu behar dugu. Eskolako kideok kontuan hartu beharko genuke zer-nolako aukerak eskaintzen dizkigun horrek. Egiten dugunak eragin ikaragarria izango du, onerako zein txarrerako”. Eskolaren eta hezkuntza

komunitate osoaren arteko saretzea oso garrantzitsua dela adierazi zuen.

Zer da hizkuntza proiektua?

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHiP) hizkuntza politika definitzeko unea da. Hautuak egiteko eta ikastetxea eraldatzeko aukera da. Eskola eraldatzeko aukera emango du, bai hizkuntza politikari dagokionez eta baita hizkuntzak ikasteko eta irakasteko erabiltzen den pedagogiari dagokionez ere.

Zer da, beraz? Hizkuntzekiko plangintza integrala da, eta hezkuntza formalean eta hezkuntza ez formalean egingo dena jasoko ditu bere baitan. Hizkuntzak irakasteari, ikasteari eta erabiltzeari lotutako alderdi guztien plangintza da, eta helburua, konpetentziak, metodologia eta ebaluazioa biltzen ditu.

Hasierako diagnostikotik abiatzen da hizkuntza proiektua. Diagnostikoa egiteko, galdetegiak egiten dira gu-

rasoei, ikasleei eta irakasleei galdetuz eta testuingurua nolakoa den aztertzen da, datu soziolinguistikoak zein diren... Ikasleen eta irakasleen profila nolakoa den ikusi beharko da, gelako eta gelaz kanpoko jarduerak eta egoerak nola gauzatzen diren, ikasleen irakurketa eta idazketa-maila zein den, material didaktikoen ezaugarriak zein diren, arlo ez-linguistikoetan hizkuntzari nola erreparatzen zaion...

Ikastetxeak bere norabidea zein izango den erabaki dezake: euskara sustatzea izango den, ingelesa sustatzea izango den... Helburua euskara ardatz duen ikasle euskaldun eleaniztuna lortzea baldin bada, adibidez, hori lortzeko hizkuntza bakoitzari zer toki eskainiko zaien zehaztu beharko da. “Ahalik eta anbizio handiena izan behar dugu, baina kontua da helburu horiek lortzeko zer baliabide ditugun”, aipatu zuen Perezek.

Irteera profila, erronka nagusia

Ikasleen irteera profila da erronka nagusia, Perezek esan zuenez: “Guk uste dugu hizkuntza helburuekin ez dela nahikoa, harago joan behar dugula. Hizkuntza profilaren osaketari dagokionez, Europako markoak kontuan hartzen du gure identitatearen eta gure izaera linguistikoaren zati bat, baina ikuspegi soziolinguistikoa eta ikuspegi historiko, sozial eta kulturala ere behar ditugu. Corpusha eta kalitatea, erabilera, jarrera, errepertorioa eta sormena behar ditugu. Hiztun osoak nahi baldin baditugu, ezaugarri horiek bilduko dituzten ikasleak behar ditugu”.

“Irakasle talde batekin ariketa egin genuen: galdetu genien ea nola irudikatzen zuten ikasleek hamar urte barru biziko duten hizkuntza testuingurua eta zer gaitasun beharko dituzten, eta profil hau atera zen: argi zuten mundu eleaniztun batean, komunikazioaren munduan eta mundu digital batean biziko direla, eta gaitasun eleaniztuna, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun kulturala, gaitasun komunikatiboa, gaitasun linguistikoa, gaitasun metalinguistikoa eta gaitasun digitala beharko dituztela. Anbizio handia da hori. Nola lortuko dugu hori guztia? Eskolan, 2 urtetik 18ra bitarteko hiztunak ditugu, eta,



beraz, denbora egon badago. Baina ba al dago norabide adosturik eta koherentziarik?”, galdetu zuen Perezek. Eta eremu soziolinguistikoa, eremu kulturala eta eremu diskurtsibo-testuala landu beharra azpimarratu zuen.

Hizkuntza ikuspegiaren lanketa ere hizpide izan zuen Huheziko irakasleak: “D ere duan, murgiltze programaren kontzientzia izan behar dugu, eta batzuetan, ahaztu egiten zaigu murgiltze irakasleak garela. Horrek testuingurua eta egoera ulertzeko beste modu bat eta horri erantzuteko bestelako estrategiak eskatzen dizkigu”.

Bada Perezen arabera oso garbi izan behar dugun ideia bat: hizkuntza proiektua ez da txosten hutsa. Askoz ere sakonagoa da. Hala zioen Perezek: “Prozesu bat da, eta, ongi bideratzeko, klaustroarekin batera egin behar da. Kontuan izan behar dugu prozesu guztiak, gutxienez, bi edo hiru urtekoak direla. Gainerako proiektuekin eta egitasmoekin lerrokatuta egon behar du, eta inguru-nearekin eta herriarekin elkarlanean aritu behar dugu, hezkuntza komunitate hedatuaren ideia aintzat hartuta”.

“Eskola gune probilegiatua da, bertan elkartzen dira haur eta familia guztiak, eta hizkuntzei dagokien aniztasun eder hori aprobetxatu behar dugu”

Karmele Perez Lizarralde, Huheziko irakaslea

Hiru testuinguru, hiru esperientzia

Hizkuntza proiektuak nola garatu daitezkeen ikusteko, testuinguru desberdinetan kokatutako hiru eskolatan egindako prozesuak azaldu zituzten “Jauzirako prest” jardunaldietan: Donostiako Aitor ikastolan, Dimako Ugarana eskolan eta Iruñeko Iparralde DBHIn. Guztiek jaso zuten Karmele Perezen laguntza prozesua aurrera eramateko.

Euskalgintzaren Kontseiluak hezkuntza arloko eragile nagusiekin batera jorratutako *Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen* txostena oinarri hartuta garatu dituzte hizkuntza proiektuak Aitor ikastolak eta Ugarana eskolak. Eskolan euskara ikastetik eta euskaraz ikastetik eskolan euskaraz bizitzera egin zuten urratsa. Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteaz gain, gaur egungo munduan eragiteko gai izango diren euskaldun eleaniztunak heztea izan zuten helburu bi kasuetan.

Iruñeko Sanduzelai auzoko Iparralde DBHI, berriz, euskara ofiziala ez den eremuan dago kokatuta, bereziki erdalduna den eremu batean. Ikastetxe horretan, ikasleen eta familien errealitate linguistikoa aztertu zuten, eta irakasleen eremu pedagogikoari buruzko hausnarke-ta egin zuten. Ikasle eleaniztunak sortzeko eta euskara komunikaziorako hizkuntza gisa erabil dezaten bultzatzeko, hezkuntza eraldatzea hartu zuten helburu.

Dimako Ugarana eskolan, 2012. urtean hasi ziren hizkuntza proiektua lantzen, eta 2018an amaitu zuten lehen zirriborroa. 1.500 biztanle ditu Dimak, eta horietatik % 90 euskaldunak dira. Zefe Ziarrusta irakaslea eman zuen Dimako esperientziaren berri: “Herriko hezkuntza proiektua aintzat hartu behar du hizkuntza proiektuak. Eskolak, udalak, gurasoek eta herritarrek konpromisoa hartu zuten, eta hezkuntza batzordea osatu zuten denen artean. Diagnostikoa egitea izan zen hurrengo pausoa, eta hiru arlotan jarri genuen indarra. Lehenik,

prestakuntzan. Bigarrenik, haurrak erdigunean jartzeari garrantzi handia eman genion. Haiek erabakietan parte hartzeak berebiziko garrantzia zuen, eta unitate didaktikoak ere diseinatu genituen. Hirugarrenik, helduen-



“Herriko hezkuntza proiektua aintzat hartu behar du hizkuntza proiektuak”
Zefe Ziarrusta, Dimako Ugarana eskolako irakaslea

GAIA: HIZKUNTZA PROIEKTUAK

IKASTETXEA ERALDATZEKO AUKERA

gan jarri genuen arreta: herriko erabileran eragiteko lantegiak antolatu genituen gurasoekin”. Herri osoaren inplikazioa bultzatu zuten, beraz, Diman.

Donostiako Egia auzoan dago Aitor ikastola. Han, hiru familiatik bi euskaldunak dira, gurasoetako bat euskalduna dute, behintzat. Julen Etxeberria irakasleak eman zuen Aitor ikastolan egindakoaren berri: “Diagnosticoa egin ondoren, euskara erdigunean jarri beharra genuela ikusi genuen. Lehenik, hemengoa bertakoa bermatu behar genuela, eta, ondoren, beste hizkuntzetara zabaldu. Eta ezin genuela eskolara mugatu: hizkuntza proiektuak komunitatea ere kontuan hartu behar zuela”. Aitor ikastolan, hizkuntza batzordea osatu zuten, eta komunitate osoaren ordezkaritza bildu zuten batzorde horretan: udala, auzoko euskara batzordea, eskolak, aisialdi taldeak, irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Ikasleei hitza ematea garrantzitsua dela azpimarratu zuen Etxeberriak: “Batzarrak egiten ditugu haiekin, eta haiek erabakitzen dute, adibidez, sarreretan zer musika jarriko dugun”.

Iruñeko Iparralde DBHIn egindakoaren berri eman zuen Fertxu Izquierdo irakasleak. Oso bestelakoa da hango egoera. Historikoki auzo langilea izan da Sanduzelai. Gaur egun etorkin ugari bizi da han, eta nagusiki erdarazko ereduak hautatzen dituzte. Kanean, giroa ia guztiz erdalduna da, eta euskara ama hizkuntza duten etxeak % 10 baino ez dira. Ikasleek ez dute euskaraz egiten, eta inguruak ez die batere laguntzen. Gaztelan aritzen dira beren artean, eta kasu askotan, irakasleei ere gaztelan zuzentzen zaizkie, Izquierdok azaldu zuenez: “Ikasleak gaztelan komunikatzen dira. Haiekin eskolan zaude, eta “cuello” nola esaten den galdetzen dizute, adibidez. Testuinguru horretan iritsi zitzaigun hizkuntza proiektua garatzeko aukera. Ikastetxean, 7-8 irakasleko taldea osatu genuen, eta, familiei eta ikasleei galdetegiak eginez, diagnosis egin genuen. Datuak etsigarriak izan ziren: aisialdian eta lagunekin zein hizkuntzatan aritzen diren galdetuta, soilik % 4k erantzun zuen euskaraz aritzen dela. Irakasleen jarduna ere aztertu genuen, hizkuntzak nola lantzen genituen ikusteko eta,



“Diagnosticoa egin ondoren, euskara erdigunean jarri beharra ikusi genuen”
Julen Etxeberria, Donostiako Aitor ikastolako irakaslea

GAIA: HIZKUNTZA PROIEKTUAK



“Diagnosia egin genuen. Datuak etsigarriak izan ziren: aisialdian eta lagunekin zein hizkuntzatan aritzen diren galdetuta, soilik % 4k erantzun zuen euskaraz aritzen dela”
Fertxu Izquierdo, Iruñeko Iparralde DBHlko irakaslea

modu horretan, gure hizkuntza proiektuaren erronkak identifikatu, eta helburuak markatu genituen. Ikasturte honetan jarri dugu abian hizkuntza proiektua”.

Zailtasunak eta etorkizunerako erronkak

Bidean aurkitu dituzten zailtasunei buruz galdetuta, bitartekoak behar direla erantzun zuten hirurek. Etxeberriak azpimarratu zuen laguntza handiagoa beharko litzatekeela euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko, eta Ziarrustak giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen beharra aipatu zuen: “Komunitatearekiko elkarlana bideratzeko, bitartekoak behar ditugu. Euskara oinarri izango duen hezkuntza sistema propioa betebehartzat dugu Ugarana eskolan, eta, norabide horretan, ezinbestekoak dira lege marko propioak, eredu sistema gainditzea eta murgiltzea indartzea”.

Izquierdok euskararen ofizialtasunik eza azpimarra-

tu zuen: “Iruñean, euskara ez da ofiziala, eta hori da guretzat zailtasun nagusia. Gure ikasleek maiz ezin dute ikusi ere egin euskararen balio praktikoa; askorentzat, euskara ikastetxeko hizkuntza baino ez da. Bestalde, institutu berria garenez, aldi baterako langileen tasa oso altua da, eta urtero aldatzen da klaustroa. Horrek edozein proiektu garatzeko zailtasunak ekartzen dizkigu”.

Etorkizunera begira, Ziarrustak azaldu zuen hizkuntza eta kultura elkar harturik euskaraz bizitzeko ildoan aurrera egin nahi dutela, komunitateko eragileekin elkarlanean betiere: “Euskara komunitatearen euskarri eta kohesio tresna bihurtu nahi dugu”. Euskararen erabileran eragiteko nahia agertu zuen Izquierdok: “Baikorrak gara, familieek euskararekiko duten atxikimendua eta euskaltzaleen ehunekoa altua delako”. Etxeberriak, bere aldetik, ilusioz aurrera jotzeko nahia azpimarratu zuen: “Hizkuntzaren lanketa ez da sekula amaitzen; erronka zaila baina polita da, eta horretan jarraituko dugu”.



“Munduko lanik inportanteena
haurtzaroa ona izango dela
ziurtatzea da”

ELKARRIZKETA: HELLE HECKMANN

WALDORF HEZITZAILEA ETA NØKKEN HAUR ESKOLAREN SORTZAILEA

Mundu osoan erreferentziazko pertsona bilakatu da Helle Heckmann danimarkarra haurtzaroari dagokionez eta Euskal Herrian Haur Hezkuntzako zikloa eskaintzen duten lau ikastetxetako bost irakasle joan ziren Danimarkara harekin aurrez aurre egotera. Ondotik, Euskal Herrira gonbidatu zuten eta **Hik Hasirekin** egoteko tarte hartu zuen. Duela 40 urte baino gehiago sortu zuen Nøkken haurren zaintzarako zentroa Kopenhagen

(Danimarka) eta haur txikiekin Waldorf pedagogia aplikatzen lehendabizikoa izan zen. Haurren zaintzari eta haur eskolei buruzko hainbat liburu argitaratu ditu eta mundu osoan dabil hezitzaileak hezten eta aholkulari gisa eskolekin, gurasoekin eta gobernuekin, Waldorf pedagogia eta Slow Parenting (gurasotasun mantsoa) defendatuz. Haurtzaroa zaintzeko beharra azpimarratzen du, hori baita mundua aldatzeko giltza, haren ustez.



Geografo ikasketak egin arren, ama izan zinenen lanbide horretan aritu ordez seme-alabak zaintzeari eta hezteari ekin zenion eta ondoren Nøkken haurren zaintzarako zentroa sortu zenuen Kopenhagen (Danimarka). Zergatik hartu zenuen erabaki hura?

Ama izan aurretik, nire burua Afrikan eta Hego Amerikan lanean irudikatzen nuen, nekazal guneetatik hirietara bizitzera joaten ziren migranteekin lan eginez, haien bizi baldintzak hobetzeko. Baina guraso izan nintzenean haurtzaroan lan egitea askoz inportanteagoa zela sentitu nuen. Zeren benetan pertsonak aldatu nahi baldin baditugu, haur txikiak direnean hasi behar dugu. Izan ere, haurtzaroa ez baldin bada ona izaten, arazoak izan ohi dira bizitza osoan zehar.

Izugarrizko aldaketa ekarri zidan erabaki horrek eta askok ez zuten ulertu. Nik neukan tituluarekin eta maila akademikoarekin nahiago nuela umeekin lan egitea? Halere, nik argi sentitu nuen hori dela munduko lanik inportanteena: umeekin lan egitea eta haurtzaroa ona izango dela ziurtatzea. Lehen zazpi urteak dira bizitzako urterik garrantzitsuenak eta urte horietan gertatzen dena eramaten da gainerako urteetan.

Haurtzaroa, zuretzat hain garrantzitsua, arriskuan dagoela esan izan duzu. Zergatik diozu hori?

Haurtzaroa arriskuan dago ez zaiolako behar duen denborarik eskaintzen. Haurrei begiratzen diegunean onura gisa ikusten ditugu; azkar erakutsi behar diegu berehala heldu bihurtzeko eta haiengandik onura jaso dezagun. Sarritan joera da akademikoki azkar hastea, 7 urte baino gutxiago dituztenean. Idazten eta irakurtzen irakasten hasten gara, ume txikientzako eskoletara bidaliz. Baina ume txikiak ez dira eskola-ume txikiak. Ume txikiak zerbait oso berezia dira. Haien garuna ez dago prest ikasketa intelektualetarako. Ume txikiak bizitzako oinarritzko gauzak ikasi behar ditu seguru eta bizitzan aurrera egiteko prest senti dadin, unea iristen zaionean bizitzan kanpora atera dadin eta pentsamendua eta garuna erabiltzen has dadin.

Ume txikia ez da heldu txikia, zerbait oso-oso berezia da eta pentsatzen dut gizartean ez dela benetan ulertzen haurtzaroa zein desberdina den bizitzako gainerako etapekin alderatuta. Gauza asko gertatzen dira haurtzaroan, lehen zazpi urteetan, eta haziera tarte horrek denbora eskatzen du: amarengandik jaiotzea, gorputz fisikoaren eta

garunaren garapena, atxikimendua...

Horrekin batera pixkanaka beste umeekin egotea desio du, sozializatzea, komunitateko parte izatea, beste haurrekin jolastea, bere burua deskubritzea eta besteak bilatzea... Horrek denak denbora asko eskatzen du eta garapen inportanteak dira gero 7 urtetik aurrera eskolara joan eta han nola jokatu jakin dezan, edo beste modu batera esanda, nahikoa denbora eskaini ez zaiolako hara heldugabe iritsi ez dadin.

Horregatik diot ume txikiak ez direla heldu txikiak. Eta hori hobeto ulertuko balitz eta ume txikiari denbora emango balitzaio bere espazioan eta pausoen hazteko, ez genituzke gazteekin ditugun arazoak edukiko. Gazteek ez dakite zer nahi duten eta bizitzarekin, zer egin txikitan ez zaielako denborarik eman hazteko edo ez zutelako behar adina denborarik izan haurtzaroan. Haurtzaroak isla du gaztaroan, bizitza kudeatzeko gaitasuna behar denean, eta gerora, noski, helduaroan eta guraso izatean.

Haurtzaroari behar duen denbora eskaintzea aldarrikatzen duzu, beraz.

Hala da. Denbora kentzen diogu ez dugulako ulertzen ulertu beharko

genukeen moduan, ume txikiak heldu txikiak direla uste dugulako. Azkarrago ikasten baldin badute, azkarrago joango dira. Gaur egungo gurasoek seme-alabekin egoteko denborarik ez dutela sentitzen dute lana egin behar dutelako eta beraientzat ere gauza asko nahi dituztelako. Seme-alabak izan aurretik zuten bizitza eduki nahi dute. Umeak maite dituzte, baina ez dute sakrifikatu nahi edo ez dute ume bat edukitzeak dakarren bidesaria ordaindu nahi. Beste batzuetan, gurasoek denbora asko behar izaten dute erritmoa jaitsi behar dutela konturatzeko eta aurretik egiten zuten guztia ezin dutela egin ohartzeko.

Egoera horretan, zer egin daitekeela uste duzu?

Oso galdera ona da eta erantzunak gure lehentasunekin du zerikusia. Haur txikiak gurasoak behar ditu, baina ez bizitza osoan, baizik bereziki lehen zazpi urteetan.

Familia asko estresatuta daude eta guraso askok kontzientzia txarra dute badakitelako ez dutela nahikoa denbora pasatzen seme-alabekin. Beraz, oraindik familiak balioa duela pentsatzen baldin badugu, nik uste dut soluzio bakarra dela gizarteak familiei laguntza gehiago eskaintzea. Posible al da gurasoetako batek astean 25-30 ordu lan egitea etxetik kanpo umeak 7 urte izan arte eta haurra instituzioetan 6-7 ordu baino gehiago egon ez dadin? Horrek alda-keta handia ekarriko luke: gurasoak denbora gehiago pasako luke etxean eta umeak ere bai, ondorioz.

Idea hau gurasoekin ere landu behar da, guraso askok uste baitute haurra hobeto dagoela profesionalekin. Haiekin ongi egon arren, umearentzat oso inportantea da etxean egotea. Nire esperientziaren arabera, ume gehienak 14:00-14:30etik aurrera nekatuta egoten dira eta etxera joan nahi izaten dute, ez dute haur eskolan edo haurtzaindegian egon nahi izaten. Baina askok arratsaldeko 4ak, 5ak edo 6ak arte egon behar izaten dute eta etxera iritsitakoan negarrez, nekatuta, haserre... egoten dira. Eta gurasoak ere nekatuta. Eta hori ez da bizitza atsegin.

Nire iritziz, gehiago inbertitu beharko litzateke haurtzaro onean, helduen arteko eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak lotuagoak izateko, elkar hobeto eta gehiago ezagutzeko, konfiantza izateko, baina baita erritmoa jaisteko eta gehiegi ez estresatzeko ere. Gauza gehiegi egiteari utzi beharko genioke.

Denborarik gabe eta estresatuta, bai helduak, bai gurasoak, bai gazteak, bai umeak... Gorpil zoro horretatik ateratzeko gai izan gaitzek?

Norbera da bere bizitza alda deza-keen bakarra. Eta bada beste gauza inportante bat ere: estresatuta egotea egoera bat edo jarrera bat dela konturatu behar dugu, ekintza bat aurrera eramateko modu bat. Adibide bat jarriko dut hobeto ulertzeko: ume bati berokia janzteko unea. Ekintza hori egin daiteke beste aldera begiratu, hitz eginez, beste umei begiratu, besoa sartzeko esanez, mugitzeko esanez... edota umei begiratu eta isilik. Lehenengo kasuan ez gaude presente eta umeak ez daki zer egitera goazen edo berak zer egin behar duen. Aldiz, bigarren kasuan kontaktuari garrantzia ematen diogu, hor gaude eta umeak badaki zer egin behar duen. Denbora aldetik berdina da, baina bigarren kasuan gusturago gaude, atseginagoa da eta ez gaude estresatuta.

Sarritan gauzak egiten ari garenean galdu egiten gara, ez dakigu zertan ari garen eta gure kontaktua galtzen dugu, bai geure buruarekiko eta baita harremanetan gauden horrekiko ere. Nik uste dut hori dela gure bizitza estresatuaren alderdi bat: geure buruarekiko kontaktua galdu dugu eta gauza guztiak azkar egin behar ditugula uste dugu, nahiz eta azkar egiteko beharrik ez izan. Badugu denbora, baina ez dugula sentitzen dugu. Denbora berbera behar da umei berokia modu batean zein bestean janzteko, baina emaitza desberdina da.

Zein da gurasoentzat, instituzioentzat eta gizartearentzat daukzun mezua?

Gurasoek haurrak izatea erabakitzen

“Haurtzaroa arriskuan dago, ez zaiolako behar duen denborarik eskaintzen”

“Ume txikia ez da heldu txikia, zerbait oso-oso berezia da eta pentsatzen dut gizartean ez dela benetan ulertzen haurtzaroa zein desberdina den gainerako etapekin alderatuta”

“Oraindik familiak balioa duela pentsatzen baldin badugu, nik uste dut soluzio bakarra dela gizarteak familiei laguntza gehiago eskaintzea”

“Gauza gehiegi egiteari utzi beharko genioke”

“Estresatuta egotea egoera bat edo jarrera bat dela konturatu behar dugu, ekintza bat aurrera eramateko modu bat”



baldin badute, euren bizitza desberdina izango dela edo aldatu egingo dela jakin behar dute, ez dutela bizitza bera izango umeak izandakoan, alegia.

Instituzioei esango nieke gazteak guraso izatea nahi baldin bada, familiarekin egoteko denbora hobe eman behar zaiela gurasoei. Bestela, familiarik gabe geratuko gara edo zaharren egoitzen modura umeentzako egoitzak sortzen bukatuko dugu, umeak han bizi daitezen astelehentik ostiralera eta gurasoak lanera joan daitezen. Familiak existitzea nahi baldin badugu, familia bizitza babes-tu behar dugula ulertu behar dugu.

Zer da zuretzat familia bizitza babestea?

Ume txikiak dituzunean kanpoko lan ordaindu gutxiago egiteko denbora onartzea umearekin denbora gehiago egoteko, umeek denbora gehiago behar baitute.

Horrekin, nik uste dut automatikoki beste gizarte bat lortuko genukeela, gure gizartean komunitatea zaintzeko talde bat egongo litzate-

keelako. Denbora baldin badaukagu, adineko pertsonak zaindu ditzakegu, edo baratze txiki bat eduki dezakegu, edo haurrekin ipuinak irakurri.

Zer funtzio betetzen dute haur eskolek zure iritziz?

Ume askori ordu batzuk etxetik kanpo pasatzeak on egiten diela uste dut, baina ez bospasei ordu baino gehiago. Uste dut garrantzitsua dela gaitasun sozialak hezteko edo lantzeko, besteekin nola erlazionatu ikasteko, partekatzen ikasteko, besteak nola jolasten diren ikusteko eta ikasteko... Uste dut garrantzitsua dela umeak beste umeekin egotea, baina ez haur eskolan bizitzea. Alegia, haur eskola ez dadila familiaren ordezkoa izan.

Aurretik haur eskola eta haurtzaindegi gehiago egon arren, zuk Nøkken haur eskola sortu zenuen Kopenhagen. Zergatik? Zer ekarpen egiteko?

7 urte bitartean ume txikiak leku askotatik pasatzen zirela ikusten nuen; aurrena zaintzaile batekin, gero haurtzaindegian, gero haur es-

kolan... Agian bospasei leku desberdinetatik pasatzen dira eta batzuetan anai-arrebak ere leku desberdinean egoten dira, elkarren bizitza ezagutu gabe eta elkarren berri izan gabe. Eta nik leku bat eta bakarra eskaini nahi nuen, non umeak bertan egongo diren eskolara hasi aurreko urte gutietan. Horrela, bi erreferentzia leku izango dituzte: etxea eta haur eskola. Niretzat hori oso garrantzitsua da.

Horrez gain, nire haur eskolak berezitasun batzuk ditu. Hasteko, ordutegia. Haurren gainean egindako hainbat ikerketa zientifikok diote sei-zazpi orduren ondoren umeen estres maila izugarri igotzen dela, oso-oso zaila dela maila hori jaistea eta ikasitakoa galdu egiten dutela oso eszitatuta daudelako. Horregatik, nire haur eskola zazpi orduz soilik egoten da irekita eta horren barruan erabakitzen du familia bakoitzak zenbat denboran eduki umea. 8:30etik aurrera hasten dira etortzen eta 9:00etarako egon behar dute. Gero 14:00-15:00 bitartean jasotzen dituzte. Ordutegi hori dugun bakarrak gara, gainerakoak 17:00 edo 18:00ak arte egoten dira irekita. Gobernuak esaten digu jendeak gurekin egon nahi duen arte finantzaturiko gaituela. Ordutegi horrekin inork ez gaituela aukeratuko uste dute. Baina 40 urte daramatzagu eta 300 haur dauzkagu itxaron zerrendan.

Haur eskola Kopenhagen dago. Lau hezitzaile eta 26 haur ditugu, 3 urtez azpiko zortzi haur eta gainerakoak 3-7 urte artekoak, eta denak batera egoten dira jateko eta lo egiteko izan ezik. Hezitzaile guztiek Waldorf formazioa dute. Danimarkan onarpen ofiziala dute Waldorf eskolek eta gobernua finantzatzen ditu. Gure haur eskolak, Waldorf pedagogian oinarrituta, umeen beharrei erantzuten die.

Umeen zein beharrei erantzuten diezue Nøkkenen?

Eguneroko lehen ekintza kanpora ateratzea izaten da, naturara, eta bi ordu izaten ditugu ibiltzeko. Horrekin, lehendabizi, mugitzeko aukera ematen diegu eta hori oso garrantzitsua da, gaur egun denbora asko egoten baitira mugitu gabe. Natu-

ran dabiltzanean ikasten dute nola eskalatu, nola igo eta jaitsi aldapan... Modu horretara, euren gorputza ezagutzen dute; orekarik ez baldin badute erori egiten direla ikasten dute, ibilian ikasten baita oreka mantentzen. Eta erortzen badira ez dira hiltzen, nahiz eta guraso askok hori pentsatu gaur egun eta umeak gainbabestu. Gaur egun jolaserako lekuak erabat babestuta daude: ez dago belarrik, ez dago hondarrik, ezta lurrik ere, garbiak daude, ez dago usainik, ez dago lorerik, elementuak daude eta euskarriak dituzte eta zorua biguna da. Ez daude umeen beharretara egokituta. Naturan, aldiz, mugak zein diren ikasten dute: zuhaitz batera igo daitezke lehen aldiz benetan horretarako prest daudenean.

Bigarrenik, ez dute jostailurik eta objekturik behar naturan ibiltzeko, eta hori ere oso garrantzitsua da gaur egungo umeek hainbeste jostailu eta objektu dituztenean. Ume askoren gelek supermerkatuak dirudite. Eta gainera, ez dira jolasten. Gehiagotan gertatzen da gauzak hartu eta utzi ibiltzea. Eta jolasa ez da gauza asko edukitzea, baizik eta nahi duzun edo egin nahi duzun gauza bat edukitzea eta horretara jolastea.

Hirugarrenik, naturan urtaroez jabetzeko aukera izaten dute eta naturarekin lotuta daude. Ez dute intelektualki kontatzen zaielako ikasten neguan hotza eta elurra egiten duela edo udaberrian txoriak etortzen direla, esperimentatuz baizik. Beti otar batekin ateratzen gara, naturan aurkitzen dituzten jakiak biltzeko.

Naturako ibilbideaz gain, zer egiten duzue lorategian eta barruan?

Hala lorategian nola barruan, helduak beti etxeko jarduerak egiten ikusten dituzte eta haiei lagundu diezaiekete edo jolasten jarraitu: arropa eskegitzen, ontziak garbitzen, kozinatzen, baratzean lanean, lorategia zaintzen... Gaur egun oso garrantzitsua da ekintza horiek egiten ikustea, ume askok inoiz ez baitute inor ikusi sukaldatzen, oheko maindireak aldatzen edo garbigailua jartzen. Gazte askok inoiz ez du komunik garbitu edo sukaldean ezer egin, eta bizi-

tzan jakin beharreko ikasketak dira. Gainera, 7 urte bitartean asko maite dute ekintza horiek egitea eta parte hartzea, komunitatearen parte sentitu nahi baitute.

Gure eguneroko jardueran badi-ra beste bi ekintza inportante eta azpimarratu nahi ditudanak: ipuinen momentua eta kantatzea.

Ipuinak eta kantuak lantzeak ere behar batzuei erantzuten die?

Bai, umeak biribilean eseri eta hezitzaileak ipuin bat kontatzen die egunero eta helburu bat du horrek: haur guztiak esertzeko eta entzuteko gai izatea —gaur egun hori ere ezin baitute egin ume askok—. Izugarrizko arreta jartzen dute eta behin ipuina entzundakoan, beraiek izan daitezkeen zerbaitetan jolasten dira —erregea, erregina...— eta jolas horiek aldatzen eta garatzen joaten dira. Modu horretara umeak bere burua ezagutzen du eta besteekin erlazionatzen da. Jolasaren bitartez bihurtzen da izaki sozial. Hori da jolastea eta hori da haurtzaroa. Ez eserita egotea edo pantaila aurrean jartzea eta hango indarkeria, gatazkak, esamolde desagokiak, entonazio altuko ahotsak eta abar irenstea, batez ere ongi dagoena eta gaizki dagoena bereiztea oso zaila delarik.

Kantatzea ere oso garrantzitsua da. Abestean erlaxatu egiten zara, ahots desberdina ateratzen da, aurpegiaren itxura aldatu egiten da, keinua aldatu egiten da irribarre bat ateraz eta oso polita eta atsegina da. Oso garrantzitsua da haurrek edertasuna sentitzea. Kantatzearekin batera mugimenduak eta keinuak egiten ditugu eta horrek zubi kognitiboak eta neuronalak eraikitzearekin zerikusia du. Eta baita arnasketarekin ere. Ume askok azaleko arnasketak egiten dituzte, ezin dute arnasketa sakonik egin, gorputz osoarekin. Azaleko arnasketarekin tonu altuagoan eta azkarrago hitz egiten da; kantatzean, berriz, arnasketa sakonagoa erabiltzen da. Askok hitz egiten baino lehenago ikasten dute abesten eta hizkuntza bere egiten dute. Ibiltzeko, katuka egiten da aurretik; hitz egiteko, kantatu egiten da; eta pentsatzeko, hitz egin.

“Instituzioei esango nieke gazteak guraso izatea nahi baldin bada, familiarekin egoteko denbora hobea eman behar zaiela gurasoei”

“Familia bizitza babestea da umeak txikiak direnean kanpoko lan ordaindu gutxiago egiteko denbora onartzea, umeekin denbora gehiago egoteko”

“Haur eskola ez dadila familiaren ordezkoa izan”

“Beste haur eskolek baino ordutegi murriztagoa dugu Nøkkenen, baina 40 urte daramatzagu eta 300 haur dauzkagu itxaron zerrendan”

“Ume askoren gelek supermerkatuak dirudite”

ESPERIENTZIAK I

ARTE, MUSIKA ETA LITERATURA TERTULIAK

Eta artea mintzagai bilakatzen da

Solasaldiak, hizketaldiak edo berbaldiak lagunarteko edo jendarteko elkarretaratzeak dira, gai baten inguruan mintzatzeko egiten direnak. Gasteizko Sansomendi ikastetxean, artearen, musikaren eta literaturaren gainean solas egiteko elkartzen dira ikasleak, hasi Haur Hezkuntzatik eta Bigarren Hezkuntzaraino. Arte tertuliak, musika tertuliak eta literatura tertuliak egiten dituzte.

Ikasturtean zehar, besteek ez bezalako lau aste izaten dituzte Gasteizko Sansomendi ikastetxeko ikasleek: ohiko eskola orduak arte tertuliek betetzen dituzte, eta, artelanen bitartez, espazio, kultura eta dimentsio berrietan murgiltzen dira. Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaraino, hiru eraikinetako ikasleek artelanei buruzko informazioa biltzen, partekatzen eta sortzen dute, eta artelan horien gaineko tertuliekin ematen diote amaiera aste horietako bakoitzari.

Ikasturtea amaitu berritan elkar-tzen dira arte tertuliako batzordeko kideak (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ordezkariak osatuta dago batzorde hori). DBHko ordezkarietako bat da Estibaliz Lafuente, hark kontatu duenez, egindakoa baloratzen dute ikasturte amaierako batzarrean, “eta hurrengo ikasturtean zer landuko dugun ere adosten dugu: zer egingo dugun, nola landuko dugun eta abar. Behin hori erabakita dagoenean, etapa bakoitzak modu independentean lantzen du, adinaren

arabera desberdina baita lantzeko modua”. Hori bai, ikasturtean zehar, denek lau aste hartzen dituzte, denek batera: irailaren hasieran lehenbizikoa, abenduan bigarrena, martxoan hirugarrena eta maiatzean azkenekoa. “Lau aste horietan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek tutoreekin lantzen dute gaia. Guk, DBHn, Plastikako orduak eta gainerako edozein ikasgaitako orduak erabiltzen ditugu aste horretan. Ohiko programazioa gelditu, eta arte tertuliaren lanketarako erabiltzen dira eskola ordu horiek”. Artelan jakin bat lantzean, gainerako ikasgaietan lantzen ari diren edukiekin lotzen dutela dio Lafuente: “Esate baterako, Historian geografia eta kokapena lantzen dira DBHko 1. mailan, artelanaren kokapena aztertzen da, eta horrekin batera, herrialde horren kokapena, klima, ohiturak, kultura, gastronomia eta abar ikasten dira”.

Askotariko artelanak

Ikasturteko lehen arte tertuliarako, Gasteizen kokatuta dagoen artelan bat hautatzen dute, gertukoa eta

ezaguna, hara joan eta zuzenean ikusteko aukera ematen duena, eta, bide batez, Gasteizko kultura ezagutzeko aitzakia eskaintzen duena. “Aurten, Casto Solana artistaren *Ume pentsalaria* artelana landu dugu, Gasteizko Posta plazan kokatuta dagoena”. Lehiaketa moduko bat antolatu genuen Gasteizen dauden Casto Solanaren artelanak bilatzeko. Atezainari eman behar zitzaion zerrenda. Ostiral batean zerrenda lehenengo ematen zionak irabazten zuen, eta DBHko 1. mailako ikasle bat iritsi zen lehenengo. Saria eskolako materiala izan zen”. Beste ikasturte batean, Txagorritxu ospitaleko biribilgunean dagoen Jorge Oteizaren eskultura bat landu zuten, Galindez abokatu eta humanista arabarraren omenez egindakoa. Aurreko ikasturte batean, Eduardo Txillidak eta Luis Peña Gantxegik egindako Arabako hiri-buruko *Foru plaza* landu zuten, eta artista bien lanak ezagutzearekin batera, foruak zer diren ere ikasi zuten. Beste batean, Legebiltzarrean dagoen Nestor Basterretxearen *Izaro* eskultura landu zuten, eta



Gasteizko Sansomendi ikas komunitateko DBH 1. mailako ikasleak arte tertulian Taj Mahal monumentuaren gaineko informazioa lantzen.

horrek aitzakia eman zien Legebiltzarra, legeak eta lege zaharrak ezagutzeko. “Helburua da inguruan ditugun artelan nagusiak ezagutzea, gure kulturaren parte direlako”, dio Lafuentek.

Abenduan, mundu osoan ezaguna den klasiko baten txanda izan ohi da, eta, aurten, Indiako Taj Mahal monumentua landu dute. Aurreko ikasturteetan, Atenaseko (Grezia) Partenoia, Erromako (Italia) Koli-seoa eta Gizeko (Egipto) piramiden berri jakin dute.

Martxoko arte tertulietan, emakume artistak edo emakumeekin erlazionatutako lanak jorratzen dituzte: Coco Chanelen *2.55 poltsa*, Francisco Goyaren *Maja jantzia*, Camille Claudelen *Sakountala...* Aurten, Yayoi Kusama-ren *Kuia* lanean murgilduko dira. “Gela guztietan, kuiak prestatzen hasi gara, eta kuia horiekin, gela bat apainduko dugu. Gero, han egingo ditugu arte tertuliak”, azaldu du Lafuentek.

Ikasturte amaierako arte tertuliako asteen, libreagoa izaten da gaia, eta, aurten, Eduardo Txillidaren Donostiako *Haizearen orrazia* ikustera

joango dira.

Lanketa guztiak aurrera eraman ahala, materiala sortzen dute, “eta guztia karpeta batean gordetzen dugu, edonoren eskura gera dadin”, dio Lafuentek.

Ikasleen ahotsa eta iritziak

Sansomendiko ikasleek tertuliak txikitatik lantzen dituztenez, oso ohituta daude, eta oso modu naturalean jarduten dute, txandak errespetatuz, iritziak emanez edo moderatzaile lanak eginez. Taj Mahal buruzko arte tertulia hasi dutenean, berehala jarri dira biribilean DBH-ko 1. mailako ikasleak. Kepa Perez eta Esti Lafuente irakasleek PowerPoint bat jarri dute, eta, irudien laguntzaz, Indiara bidaiatu dute ikasleek. Munduko mapan kokatu dute lehendabizi, eta Pakistango bi ikasleek Indiaren alboan ikusi dute euren jatorrizko herrialdea.

Indiari buruzko datuek harridura eragin diote Leonor ikasleari. 44 milioi biztanle ditu Indiak —Euskal Herriak 3.200.000 biztanle inguru ditu—. Indiako mendirik altuena Kangchenjunga da, eta irakasleak

Ikasturteko lau astetan Sansomendiko ikasleen ohiko orduak arte tertuliek betetzen dituzte, eta artelanen bitartez, espazio, kultura eta dimentsio berrietan murgiltzen dira.

ESPERIENTZIAK: ARTE, MUSIKA ETA LITERATURA TERTULIAK

“Hitz egiteko jarraibideak ikasten dituzte, eta baita txandak errespetatzen eta iritzi guztiak balekatzat hartzen ere. Horrek tertulietatik kanpo bizitzako beste esparru batzuetarako ere balio die”

Estibaliz Lafuente
Irakaslea eta arte eta musika tertulien arduraduna

ikasle pakistandarrei nola ahoskatzen den galdetu die. Irakasleak Indian sei urtaro dituztela kontatu duenean, Emilioren harridura oihua entzun da. Eta, ondoren, Euskal Herriaren eta Indiaren arteko ordu diferentzia kalkulatu dute.

Bidaiazteko gogoia piztu saio Jennyri, Taj Mahal monumentua-

ren irudiak ikusitakoan. Irakasleek azaldu diete Taj Mahal mausoleo bat dela, Shah Jahan errege mogolak bere emazte Mumtaz Mahal-en omenez eraiki zuena, 1631. eta 1654. urteen bitartean. Sha Jahanen eta Mumtaz Mahalen gorpuak han daude, munduari beren betiereko amodioa gogorarazi nahian. Erregina bere hamalagarren haurraz erditzean hil zen. Ikasle gazteei ez die arreta berezirik eman amodiozko istorio horrek.

Arkitektura eraikinaren neurriak idatzi dituzte ondoren, eta harrituta geratu dira Lafuentek futbol estadioekin konparatu dituenean: “Taj Mahal eraikitzeke, 20.000 pertsonak lan egin zuten, eta elefanteak erabili zituzten lanerako, 20 urtean”, azaldu die Perezek. Gaur egun, lan prekariorik baden galdetu die irakasleak, eta Javik baietz erantzun du, Qatarko Munduko Futbol Kopan hori gertatu dela. Azken 12 urteetan, sekulako futbol estadioak eraiki dira; guztiak orain egin dituzte, lehen ez baitzen halakorik. Estadio asko egin dituzte denbora gutxian, eta kalkulatzan da 6.000 langile hil direla obretan, gehienak kanpotarrak. Hemen ere gertatzen da; lan prekario asko daude, eta jendea hiltzen da. Zainek

gehitu du bere amaren osaba 5. pisutik erorita hil zela Pakistanen. Eta Sarayk erantsi du bere aitak arnesarekin lan egiten duela.

Irudi guztiak ikusi ondoren, orri bana banatu diete irakasleek, eta euren inpresioak eta iritzia idazteko denbora hartu dute. Ondoren, Arman moderatzaile izatera animatu da, eta txandaka-txandaka, idatzi dutena adierazteko hitza eman die denei. Jennyk esan du asko gustatu zaizkiola marmol zuriak, eta hara bidaiazteko gogoia sortu zaiola. Samyk esan du oso polita iruditu zaiola, baina ez zaiola gustatu hillobiak han bertan egotea.

Samuelek esan du horrelako monumentuak egiteari ez diola zentzurik ikusten, hainbeste diru eta denbora galtzea hillobi bat egiteko. Esku-hartze bakoitzaren ondoren, Arman moderatzaileak galdetu du ea norbaitek zerbait gehiago erantsi nahi duen. Iritzi guztiak dira balekoak, zerbaitegatik esan dute esandakoa, eta argudioekin azaltzen dute normalean. “Hitz egiteko jarraibideak ikasten dituzte, eta baita txandak errespetatzen eta iritzi guztiak balekatzat hartzen ere. Horrek tertulietatik kanpo bizitzako beste esparru batzuetarako ere balio die”, dio irakasleak.



Taj Mahalen arte tertulian ikasleak monumentuari buruzko iritzia ematen eta eztabaidatzen.

Gelako aniztasunak tertulia aberastu egiten duela gaineratu du Lafuentek. “Normalean, ikasleek ez daukate espaziorik euren jatorrizko herrialdeari eta euren bizitzari buruz hitz egiteko, eta tertulietan, bai. Nahi dutena esan dezakete, eta oso aberasgarria izaten da”. Talde honetan, bi pakistandar, kolonbiar bat eta hamaika ijito daude.

Tertulien funtsa

Ikaskuntza komunitatea da Sansomendiko eskola, eta hezkuntza proiektu eta antolaketa horren barruan, hezkuntza jarduera arrakastatsuak eramaten dituzte aurrera. “Horren barruan kokatzen ditugu tertuliak, bai arte tertuliak, bai literatura tertuliak eta baita musika tertuliak ere”, diosku Lafuentek. “Tertulia guztien helburua ikasleei lehen mailako kulturarako sarbidea eskaintzea da. Lantzen diren artelanez, musika piezek eta literatura lanek belaunaldiz belaunaldi balioak transmititzen dituztela frogatu dute, eta gure ikasleek maila goreneko kultura horretan sarbidea izan dezaten nahi dugu”. Klasikotzat eta garrantzitsutzat jotzen diren lan horiek balioak transmititzen dituzte, “eta gure ikasleek balio horiek bereganatzea nahi dugu”.

Musika tertuliak

Arteari buruzko tertuliak egiteaz gain, musika tertuliak ere lantzen dituzte Sansomendin, “ebaluazio bakoitzean bat, eta arte tertulien filosofia berarekin: oso-oso ezagunak diren musika klasikoko obrak entzuten eta lantzen ditugu, hementik at haiek inoiz entzungo ez lituzketen obrak. Guk aukera ematen diegu”, dio musikako tertulien arduradun ere baden Lafuente irakasleak. Orain arte, besteak beste, obra hauekin egin dituzte musika tertuliak: Pablo Sarasateren *Zapateado*, Richard Wagner-en *Walkirien kabalkada*, Edvard Grieg-en *Peer Gynt*, Giacomo Puccini-ren *Nessun dorma (Turandot)*, Fanny Mendelson-en *Il saltarello romano* (op 6 no 40), Jesus Guridiren *El caserio* eta Piotr Ilitx Txaikovski-ren *Intxaur-hauskailua*. Otsailean, Ella Fitzgerald abeslaria landuko dute. “Azaroan Pablo Sarasateren *Zapateado* landu genuenean, flamenkoarekin erlazionatu genuen, eta kultura desberdinetako zapateadoak ezagutzeko baliatu genuen”, azaldu du Lafuentek. “Ijitoak Espainiatik Ameriketara joan ziren, eta Mexikon badago zapateado bat, Kolonbian beste bat... Horrez gain,

Gasteizko *La Pulga* dantzari flamenkoa ekarri genuen eskolara, eta lantegi bat egin genuen harekin”.

“Musika entzuten duten bitartean, arreta jarri behar dute, aktiboki entzun, eta, ondoren, zer eta zergatik gustatu zaien edo ez zaien gustatu esaten dute, zer ikasi duten, zerk eman dien arreta, zer ez zaien batiere gustatu. Adibidez, gustatu egin zaiela bat-batean gelditu delako, edo mantsotu egin delako, edo instrumentu gehiago sartu direlako”. Lafuentek azpimarratu du guztien iritzia dela garrantzitsua: “Ez dago balio ez duen edo txarra den iritzirik”. Musika klasikoko obrak behin eta berriro entzuten dituzte, eta, horrela, entzuteko kultura ere lantzen dute.

Literatura tertuliak

Literatura tertuliak astero egiten dituzte Sansomendin, eta irakurgaien artean egoten dira beti William Shakespeareren *Romeo eta Julieta*, Federico Garcia Lorcaren *Bodas de sangre* eta *La casa de Bernarda Alba*. Duela gutxi, Carmen Laforeten *Nada* liburua irakurri ziren, eta izenburu bereko antzezlanak ikusterako joan ziren DBHko 4. mailako ikasleak.



Taj Mahal monumentuaren arte tertulia egitearekin batera, sukaldaritzako tailer bat ere egin dute.

ESPERIENTZIAK II

INAUTERIAK

Inauterietako ospakizunak birpentsatzen

Hainbat herri eta ikastetxe inauterietako ospakizunak aldatzen ari dira. Horietako bat da Elizondoko eskola publikoa. Haurren parte-hartzea, euskal kultura eta Baztango tradizioak, eskola herriari irekitzea eta ohiturak naturarekin lotzea izan dira eraldaketaren ardatzetako batzuk. Eraldaketa ez da inauterietara mugatzen, eskolako proiektu osora zabaltzen baita.

Norentzako dira inauteriak?” Horra Elizondoko ikastetxe publikoak inauterietako ospakizunak eraldatzeko abiapuntuan ezarritako galdera. “Umeei begira, ala gurasoei begira prestatzen ditugu inauterietako ekitaldiak?”. Gero eta ikastetxe gehiago dira urteko ospakizunen inguruan, eta tartean beraz, inauterien gainean, hausnartu eta aldaketak egiten ari direnak, izan hezkidetza-gatik, laiktasunagatik, tradizioagatik, parte-hartzeagatik edo beste arrazoren batengatik. Hainbat tokitan, egiten diren inauterietako ospakizunek errebisio bat behar dute alderdi horiek guztiak kontuan izanik.

Elizondoko ikastetxeak pandemia garaian ikusi zuen birplanteamendu hori egiteko beharra, Zuriñe Zubillaga Haur Hezkuntzako irakasleak, Maite Etxenike Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasketa buruak eta Josune Zuñiga zuzendariak **Hik Hasiri** kontatu dioten eran: “Beti patroï bera errepikatzen zen: gai bat hartzen genuen ikastetxe osoak, eta gela osoa berdin mozorrotzen



Elizondoko eskolan gai baten arabera mozorrotzen ziren lehen haur guztiak, eta ondoren herrian desfilea egiten zuten. Pandemiako debekuen ondorioz, mozorro librearen hautua egin dute.

ginen; adibidez, zirkuaren inguruan, batzuk pailazoak, besteak magoak, animaliak... Ondoren guztiek irakaslearekin koreografia bat ikasten zuten eta herrian desfile bat egiten genuen”. “Gurasoentzako eta helduentzako erakusleiko bat

zen”, gehitu dio Zuñigaren azalpenari Etxenikek. “Urtetan egin izan den inauterietako ospakizuna ez zen umeei begira egiten zen zerbait, baizik eta helduentzat egiten genuen zerbait, oso kontziente egiten ez bagenuen ere. Eta inauteriak no-

rentzako izan behar lirateke? Guk argi daukagu: umeentzat. Haiekin zerbait egitera pasa gara orain, haur guztiak parte senti daitezen”. Pandemia garaian, ordea, segurtasun neurriak medio, ezin izan zuten ohiko mozerro desfilea egin Elizondoko herrian, eta gai bati jarraitu orde, mozerro librea hautatzeko aukera eskaini zieten umei. “Eta ikasleekin egindako balorazioek eta batzarrek argi erakutsi zuten gai baten arabera desfilea eta koreografia baino nahiago zutela mozerro librea. Nola sentitzen ziren gusturago galdetu genien, zer proposatuko luketen beraiek... eta argi adierazi zuten desfilea, gehienek, ez dutela gustuko. Geletako batzar nagusietan erraten zuten euren inauteririk onena pandemiagatik desfilea egin ez zuten urtekoa izan zela, mozerro librea”, azaldu du Etxenikek.

Tokian tokiko tradizioa berreskuratuz

Haurrak, batetik, kontuan hartuak sentitu dira euren borondatea aintzat hartu eta ikastetxeak inauterien kontzeptua aldatu duenean, eta bestetik, erosoago sentitu dira euren



Mozorro tradizionalak bueltan

Elizondoko inauterietan ez da inguruko herrietan eta Nafarroako beste bailara batzuetan bezalako indarrez gorde mozerro tradizionala eta mozerro modernoetara edo mozerro librerara jo izan dute herritarrek. Azken bost bat urtetan inauteri tradizionalak berreskuratzeke ahalegina egiten ari dira herriko gazteak eta eskolako irakasleak eta Guraso Elkar-teak ere norabide berean ari dira lanean. Argazkian, iazko inauterietan irakasleak mozerro zuriz jantzita.

buruarekin, zuzendariak adierazi duenez: “Lehenago, hilabete osoa pasatzen zuten herrian erakutsiko zuten koreografia bat entseatzen, eta asko ez ziren eroso sentitzen; aldiz orain, askatasuna sentitu dute euren mozerroa erabakitzeko aukerarekin. Keinu txikiak dira, baina haurren bizipena guztiz aldatzen dutenak”.

Haurren parte-hartzea izan da inauterietako ospakizunak aldatzeko ardatzetako bat Elizondoko ikastetxean. “Gurasoentzako” zen zerbait, “haurrentzako eta haurrekin” egitera pasatzea izan da ardatzetako bat, baina ez da bakarria izan. “Eskolako proiektu gisa, ardatz bat euskal kultura eta bereziki Baztango kultura eta, ahal den



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola herrikoa inauterietan bizirik!

ABALTZISKETA
ADUNA
AGIÑA
AIZARNA
AIZARNAZABAL
ALBIZTUR
ALKIZA

ALTZO
ANGIOZAR
ARROA
BERROBI
BIDANIA-GOITZ
EREÑOZU
ERREZIL

EZKIO-ITSASO
GABIRI
IGELDO
IKAZTEGIETA
ITSASONDO
ITZIAR
LARRAUL

LIZARTZA
OIKIA
OLABERRIA
ZERAIN
ZIZURKIL
ZUBIETA



www.eskolatxikiak.eus

ESPERIENTZIAK: INAUTERIETAKO OSPAKIZUNAK



Haurrak naturara gerturatzea eta natura ikaskuntza proiektuan txertatzeko helburua du Elizondoko eskolaren Kukuline proiektuak. Otsailaren 1ean haurrek lehen haziak landatu zituzten eskolako baratzean.

neurrian, Elizondoko kultura berreskuratzea eta eskolako bizitzan txertatzea garrantzitsua da guretzat —azaldu du Zubillagak—. Etorkin kopuru handia duen ikastetxea izanik, ikasle horiek guztiak euskarara eta euskal kulturara gerturatzeke gozamenetik egin behar genuela argi geneukan. Ikasle etorkinak hemen integratzeko beharrezkoa dugu ekintza integratzaileak egitea, euskal kultura eta Baztango kultura transmititu ez ezik bizitzeko eta gozatzeke aukera eman behar diegu”. Gainera, Elizondon bertan, gazteak hasiak dira Elizondoko inauterien tradizioa berreskuratzen, inauterietako ostiral goizean etxez etxe puskak biltzen, esate baterako, eta herri hezitzaileen filosofiatik, herriari ateak irekitzeko aukera eman dio ikastetxeari, hain zuzen ere, inauterietan Elizondoko tradizioa berreskuratzeke ahaleginak, zuzendariak adierazi duenez: “Askotan herria eta eskola aparte joaten gara, gainera, eskola fisikoki herritik aparte dago eta guretzat garrantzitsua da eskutik joatea, ohiturak integratzeaz eta islatzeaz gain, eskola herriarena izan dadin nahi dugu eta herria eskolarena. Gure ikasleek herritar-

“Geletako batzar nagusietan erraten zuten euren inauteririk onena pandemiagatik desfilea egin ez zuten urtekoa izan zela, mozorro librea”

Maite Etxenike, Elizondoko eskolako ikasketa burua

“Ikasle etorkinak hemen integratzeko beharrezkoa dugu ekintza integratzaileak egitea, kultura transmititu ez ezik gozatzeke aukera eman behar diegu”

Zuriñe Zubillaga, Elizondoko eskolako irakaslea

tasun sena landu dezaten herriko gauzak ekarri behar ditugu eskolara eta bueltan eskolako gauzak eskaini herriari”.

Herrian egiten ari diren moduan, beraz, Baztango eta Elizondoko inauterien tradizioa berreskuratzen eta ezagutarazten hasi ziren eskolan pandemia ondotik. “Elizondok ez dauka ez Arizkunek ez ondoko beste herri txikiagoek duten tradizioirik inauteri aldetik, baina bada zer ezaguturik, bai etorkinek baina baita hemen jaiotakoek ere ez dakitenik”, adierazi du Etxenikek. Elizondon bizi den Patxi Larralde txistulari eta folklore ikertzailea gonbidatu zuten iazko inauterien bezperan ikastetxera, Baztango inauterien esanahiaz eta mozorroen tradizioaz ikasleei solasaldia eskaintzera batetik, eta bestetik, ospakizun hauetan egin izan diren hainbat dantza irakastera —lehenengo urtean mozorro-dantza eta aurtan sagar-dantza—, eta halaber, Elizondon inauterietako ostegunean ospatzen den Orakunde eguneko eta inauterietako kopia zaharrak irakastera. Ikasitakoa plazara eramango dute ikasleek ostiral goizean, Larralderekin ikasitako mozorro-dantza, sagar-dantza eta

zortziko, fandango, zazpi jauzi eta abarrak dantzatuko dituzte Elizondoko plazan, bakoitzak nahi duen gisan mozorrotua.

Mozorroei dagokienez, Elizondon ez da mozorro tradizionala inguruko beste herrietan bezala mantendu eta azken urte luzeetan herritarrek mozorro librearen aldeko hautua egin izan badute ere, aspaldiko garaietan elizondorrek ere inauterietan negua, hotza eta egun ilunak bukatze daudela ospatzen zuten sasoi honetan, eta hastear den naturaren ziklo berriari etorrera egiten zioten, zaratarekin hartza bere kobazulotik ernarazi, lurra jo uzta aberats eman dezan... “Eta askotan herritarrek aukeratzen zituzten mozorroak zergatik ziren beldurgarriak azaldu zigun Patxik—kontatu du Etxenikek—, barrenean zeukaten kezka edo beldurra kanporatzen zuten mozorroen bidez, ez baitzekiten etorriko zen uzta ona izango zen ala ez, ez zekiten beraz, janaria izango zuten ala ez”. Irakasleek eta Guraso Elkartek berreskuratu dituzte Elizondoko tradiziozko mozorroak, eta horiek haurrengana iristea litzateke hurrengo pausoa: “Polita izango litzateke haurrek garai bateko mozorroak berreskuratzea, gaur egun modan dauden mozorro estereotipuetatik ateratzea —kontatu du Etxenikek—. Oraingoz, geletan eta gurasoei pasa diegu mezua, mozorrorik ez erosteko, etxean dituzten

atorra zaharrak, bonetak eta abarrak ateratzeko...”. Urratsez urrats. Inauteriak eta, oro har, urteko ospakizunak hezkidetzaren ikuspuntutik ere errebisatzea beste urrats bat izango da: “Baina hau prozesu bat da —gehitu dio Zubillagak— eskola eta eskola proiektu osoa ukitzen duena”.

Natura eskolako bizitzan txertatzeko hautua

Pandemiak ekarri zuen abagune zaila aukera gisa baliatu dute inauteriak

“Inauterietako
aldaketan ardatz izan
ditugun hainbat gai
—haurren parte-
hartzea, euskal kultura
berreskuratzea, eskola
herriari irekitzea,
natura eta abar—, ez
dira soilik inauterietara
mugatzen ”

Josune Zuñiga,
Elizondoko eskolako zuzendaria

berriro pentsatzeko, baina aldaketa ez da soilik inauterietako ospakizunetan gertatu. “Inauterietako aldaketan ardatz izan ditugun hainbat gai —haurren parte-hartzea, euskal kultura berreskuratzea, eskola herriari irekitzea, naturarekiko harremanak sustatzea eta abar— ez dira soilik inauterietara mugatzen —azaldu du zuzendariak—. Ikastetxea prozesu batean murgildu da eta horrek eragin du bai beste ospakizun batzuetan, eta baita eskolako bizitzan eta eskolako proiektuan ere.” Inauterien aurretik, hain zuzen ere, lurra ernatzeko ohitura berreskuratu dute, eskola naturari ireki eta, bide batez, natura eskolan txertatzeko Kukuline proiektua baitute, kanpo espazioaren eraldaketa bultzatzeko, non oilategi, baratza, fruta-arbola eta abarrak lantzen dituzte eskolako hurrekin nahiz familiekin auzolanean: “Urteko ospakizunak naturarekin lotzen ari gara, lehengo garaietan egiten zuten moduan, eta eguzki berriarekin lurra agurtu bagenuen, inaute aurrean lurra ernatzeko ikasleak eskolako baratzera joango dira aitzur-rekin lurra jo eta kantuz ernatzera, uzta ona eman dezan”, azaldu du Zuñigak. Lurra ernatze hori **Hik Hasi**rekin elkarriketa egin ostean egin zuten, otsailaren 1ean, eta ondotik, lehen haziak landatu zituzten.

Eguberrietako ospakizunak ere eraldaketako filosofia berarekin ospatzen hasi dira azken bi urteetan eta kristautasunaren aurreko ospakizunen esentzia berreskuratu dute, neguko solstizioarekin eta naturaren lo-harraldiarekin lotuz. Horretarako Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozolaren *Eguberriak* liburuan oinarritu dira, non Eguberriari buruzko bestelako ikuspegi kultural eta antropologiko bat eskaintzen duten, naturari lotuagoa, Zubillagak azaldu duen eran: “Eguberriek ez dute zuzenean Baztango ohiturekin lotura, baina bai euskal kulturekin, eta lehengo ohitura horiek naturarekin lotuak daude eta hori transmititu nahi izan diegu ikasleei. Liburuko pasarteetan oinarrituta, antzerkiak egin zituzten eta, era horretan eurenaganatu zuten bestelako tradizio bat”.



Neguko lozorrotik esnatzeko eta udaberriari deitzeko, lurra jotzeko ohitura aspaldikoa da Euskal Herrian, Europako beste leku batzuetan bezala, uzta ematen has dadin. Otsail hasieran egiten da. Elizondoko eskolan baratzia proiektua daukate, eta lurra ernatzeko ohitura berreskuratu dute. Inauteriei hasiera emateko ekitaldia izan ohi da.

EKARPENAK I

HERIOTZAREN PEDAGOGIA, BIZITZARAKO PEDAGOGIA

Heriotzaren pedagogia hezkuntzan txertatzearen aldeko apustua

Bizitzaren ezaugarria da bizi muga eta horrek bizitzak muga duela esan nahi du, amaiera ela, hain zuzen ere. Hau da, pertsonak finituak garela ondorioztatzen da: jaio, bizi eta hil egingo gara. Baina hori horrela izanik ere, leku eskasa du heriotzak eskolan. Heriotzaren pedagogia bizitzarako pedagogia dela azpimarratzen du Ianire Larrazabalek artikulu honetan. Gai hori aztertu zuen Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiteko.

Heriotza da bizitzan zehar gertatuko den gauza ziur bakarra: bizitzaren amaiera da heriotza, zerbait naturala. Hori horrela, heriotza ezin da bizitzatik aldentuta ulertu, heriotza bizitzaren baitan eta bizitza heriotzaren baitan ulertu behar dira, bata ez baitu izaterik bestea gabe. Bi horiek kontrajartzeko nagusitzen den ohiturarekin amaitu eta elkarren osagarritasuna onartu eta aldarrikatu behar da. Aldi berean, arrazoimenaz baliatuz, bizitzaren mugaz ohartzea eta heriotzaren gaineko kontzientzia garatzea ezinbestekoa da.

Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da hezkuntzan heriotzaren gaia lantzea; aitzitik, oro har, ez da lantzen. Ezen, hezkuntza sisteman orokorrean zein hezkuntza zentroetan zehazki, (ia) ez dago heriotzaren pedagogia hezkuntzan txertatzeko plangintzarik, eta hezkuntza zentroen hezkuntza proiektuetan ez da heriotzaren gaia jasotzen, curriculum nazionaletan zein autonomi-



IANIRE LARRAZABAL
Pedagogoia

koetan heriotza arbuiatzen baita. Haatik, beharrezkoa da heriotzaren lanketa hezkuntzan txertatzea. Txertatze horrek hezkuntzaren eraldaketa ekarriko luke, izan ere,

bizitzarako prestatzen duen hezkuntzak ezin ditu heriotza bera zein horri buruzko lanketa baztertu –gaur egungo hezkuntzak egiten duen moduan–, heriotza bizitzaren parte ukaezina denez.

Heriotzaren pedagogiaren ekarpena kokatzea garrantzitsua da. Izan ere, hezkuntza testuinguru guztietan, heriotza zein bizi mugatasuna lantzen dituzten hezkuntza modu guztiak barne hartzen dituen diziplina da, horretarako bizitzaren eta heriotzaren arteko lotura azpimarratuz eta horren kontzientzia bultzatuz. Halaber, aipatzekoa da heriotzaren pedagogia egun sortze bidean dagoen ikerkuntza, prestakuntza eta berrikuntza gai gisa hartzen dela.

Hori horrela izanik, giza bizi muga kontuan hartzen ez duen hezkuntza alde batera uztea aldarrikatu behar da eta baita heriotza kontuan hartzen duen hezkuntzaren garrantzia ere, bizitzako balioetara bideratutako hezkuntzaren alde eginez. Izan ere, heriotzaren lanketa barne



hartzen duen hezkuntza, bizitzaren konplexutasunari zein bizitzaren zentzuari erabat lotuta dago, bizitza bere osotasunean ulertzen baitu.

Heriotza, tabu

Heriotza. Bizi muga. Bizitza. Elkar osatzen diren hiru kontzeptu dira, nahiz eta geurea bezalako gizarteetan —mendebaldeko gizarte postmoderno-postindustrialetan, alegia— errealitate hori ukatzeko joera nabarmena den. Heriotza baztertzeko da tabua den gaia delako. Hori horrela izanik, heriotzaren arbuioari aurre eginez bizi mugaren gaineko kontzientzia bultzatu behar da heriotzaren pedagogiaren aldeko apustua eginez, heriotzaren gaineko lanketa burutzea posible izan dadin.

Ezin da ahaztu hezkuntza fenomeno soziala dela. Gizarteak eragin nabarmena du hezkuntzan, baldintzatu egiten du. Hala ere, eragin hori bi noranzkoa da, hezkuntzak ere gizartearen eragiteko gaitasuna baitu. Hezkuntzaren funtzioa hezigaiak gizarteratzea eta horiek lan mundurako zein bizitzan gerta daitezkeen egoerei zein askotariko erronkei aurre egiteko prestatzea izango lirateke. Beraz, hezkuntzak bizitzarako eta heriotzarako prestakuntza bermatu beharko luke, egun horrela ez bada ere.

Horren harira, esan daiteke heriotza naturala bada ere, fenomeno soziala eta kulturala dela. Izan ere, garaia, gizartearen, kulturaren... arabera heriotzaren ulerkerak aldatuz joan da. Argi dago gizartearen gertatzen diren aldaketek heriotzaren ulerkeran eragina izan dutela. Horrenbestez, egungo mendebaldeko gizartearen gertatzen den heriotzaren arbuioa eragin sozialen eta kulturalen ondorioztat har liteke. Hala, gizarte tradizionaletik gizarte postmoderno-postindustrialera igarotzeak, neurri handi batean heriotzaren bazterketa eragin duela esan behar da. Zehazki, Zygmunt Bauman soziologoak definitutako gizarte likidoaren baitan, aldaketa etengabearen gizartearen, ulertu behar da heriotzaren ukapena. Gaur egun mendebaldeko gizartearen heriotza tabua den gaia da, tabu modernoa edo garaikidea dela esan daiteke.

Oro har, egungo mendebaldeko gizartearen heriotzak ez du gizakion arreta merezi, betiko bizi nahia edo hilezkortasun nahia nabarmentzen baita, heriotza zuzenean ukatuz. Eta, modu horretan, gizartearen zein hezkuntzan ez zaio lekuri egiten heriotzaren lanketari. Baina heriotza baztertzeko, kolpea handiagoa izatea eragiten du, “heriotza debalua-

zio bat da, beti dago hor, eta iristen denean kolpea handiagoa da orain”, Joxe Amiama EHUKo irakasleak dioenez. Hortaz, heriotza bizitzaren baitan ulertzea eta onartzea garrantzitsua eta ezinbestekoa da, heriotzari aurre egiteko prestatzen laguntzen baitu aitorpen soil horrek. Horretarako, hezkuntzan heriotzaren lanketa txertatzea beharrezkoa

Heriotzari aurre hartu behar zaio, hau da, hezkuntzaren bidez heriotza proaktiboki aztertu eta landu behar da heriotzaren pedagogia hezkuntza curriculumean txertatuz eta, horrela, heriotzaren alfabetatzea bultzatuz.

Hezitzaile gehienak heriotzaren pedagogia hezkuntzan txertatzearen aldekoak badira ere, ez dute inoiz heriotzaren pedagogiari buruzko formakuntzarik jaso, eta, orokorrean ez dute heriotzaren gaia hezkuntzan txertatzeko baliabide nahikorik

da, gaur egun hezkuntzan dugun hutsunea baita, nahiz eta norbana-koarentzat funtsezko gai erradikala izan.

Horren harira, aipatzekoa da heriotzaren bat gertu gertatzen denean horren gaineko arbuioa desagertu ohi dela, eta heriotzarekin harreman hertsia duen gertaera zehatz bat

izaten da maiz heriotzaren lanketaren pizgarri. Baina, heriotzari buruz hitz egiteko ez da inor hil behar, egiazki, hori ez baita gai horri ekiteko memento egokia. Une horretan laguntza eta babesa eskaini behar zaizkio maite bat galdu duen pertsona orori, baino ez da inolaz ere heriotzaren lanketa egin behar; haatik, hezkuntza erakundeek dolauren akonpainamendu hezigarria egiten jakin behar dute, nahiz eta hezkuntza zentroetan ez den ohikoa izaten hezigaiei eragiten dieten heriotza kasuetan jarduteko prozedurarik existitzea. Ostera, heriotzari aurea hartu behar zaio, hau da, hezkuntzaren bidez heriotza proaktiboki aztertu eta landu behar da heriotzaren pedagogia hezkuntza curriculumean txertatuz eta, horrela, heriotzan alfabetatzea bultzatuz, hori gertatzean —heriotzak gertatu-ko baitira— prest egoteko eta dolu prozesua arintzeko gaitasunak eta konpetentziak garatzeko.

Heriotza tabua den gaia izateaz gain, erronka gisa ere definitu izan da, baita erronka pedagogiko gisa ere. Halaber, heriotzaren inklusioa hezkuntza bera eraldatuko lukeen erronka zein behar pedagogikotzat

hartzen da. Heriotzaren lanketak hezkuntzan erronka izaera izan dezake eta horri heldzea beharrezkoa da, heriotzari buruzko ezjakintasunak eta prestakuntza faltak, heriotzaren gaineko formakuntza beharra azaleratzen dutelako, eta, aldi berean, tabu izaera bultzatzen dutelako.

Hezitzaileen prestakuntza

Hala, heriotzaren tabu izaera gainditzeko hezkuntzan gai horren lanketa egitea beharrezkoa da. Horretarako, lehendabizi hezitzaileak gaitu behar dira, hots, heriotzaren pedagogiari dagokion behar formatiboari erantzun behar zaio. Izan ere, hezitzaile gehienak heriotzaren pedagogia hezkuntzan txertatzearen aldekoak badira ere, ez dute inoiz heriotzaren pedagogiari buruzko formakuntzarik jaso eta, orokorrean, ez dute heriotzaren gaia hezkuntzan txertatzeko baliabide nahikorik. Halaber, badira heriotzari buruz hitz egiteari edo gaiaren lanketa hutsa minaren, oinazearen zein atseka-bearen eragile izateari beldur dioten hezitzaileak, eta hortaz, gai horren lanketa ekiditen dutenak. Hori horrela, hezkuntzako profesionalei



bideratutako heriotzaren pedagogia-
ren gaineko prestakuntza programen
beharra mahaigaineratu beharra
dago, formakuntzaren bidez gaiaren
lanketa garatzea errazten delako.

Bestalde, heriotzaren pedagogia
hezkuntzan txertatzearen aldeko
apustua aurrera eramateko, hezitzaileek
argi izan behar dute heriotzaren
gaineko kontzepzioa, ezagutza,
ulerkera, interesak eta usteak adi-
naren arabera aldatu egiten direla.
Beraz, hezkuntza etapa ezberdinetan
heriotza modu ezberdinetan landu
behar da, haurren garapenera zein
unean uneko beharretara egokitu-
tako lanketaren bidez.

Argi dago heriotza eta giza bizi
muga ez direla hezkuntza-edukie-
tan jasotzen, gizakiaren baldintza
erradikalak izan arren. Hartara, hez-
kuntza prozesua baldintzatu egiten
da, heriotzaren lanketa hobekuntza
sozialerako eta pertsonalerako ezin-
bestekoa suertatzen baita. Izan ere,
kontuan hartu beharreko premisa da
heriotzerako hezten ez bada, ezin
dela bizitzarako hezi, heriotza ar-
buiatzen duen hezkuntzak ezin baitu
inolaz ere hezkuntza integrala izan.

Heriotzaren inklusioa hezkun-
tzan, oraindik orain egiteke dagoen
eraldaketa da, behar bat, alegia.
Horrez gain, kontuan hartu behar
da heriotzak tabu izaten jarraitzen
duen heinean, beharrezkoa izango
dela hezkuntzan heriotzaren lanketa
egitea. Baina, noizbait tabu izateari
uzten badio ere, hezkuntzan herio-
tzaren pedagogia lantzen jarraitu
beharko litzateke, finean bizitzarako
hezkuntza delako.

Bibliografia

- AMIAMA, J. (2016ko azaroaren 1a). "Ezin dugu tapatu sufrimen-
dua, bestela beste momentu batean
sortuko da" (Heriotza eta Doluari
buruzko elkarrizketa). *Tolosaldeako
Ataria*.
- HERRÁN, A. eta CORTINA, M. (2006). *La muerte y su didáctica: Manual para Educación Infantil, Primaria y Secundaria*. Editorial Universitas, S. A.
- HERRÁN, A., GONZÁLEZ, I.,



NAVARRO, M. J., BRAVO, S. eta
FREIRE, M. V. (2000). *¿Todos los
caracoles se mueren siempre? Cómo
tratar la muerte en educación infantil
(Do all snails always die? How to
treat death in early childhood educa-
tion)*. Torre.

- HERRÁN, A., RODRÍGUEZ, P.,
CALLEJO, J. J. eta JIMÉNEZ, R. (2021). Do adolescents want death
to be included in their education?
Social Psychology of Education, 24,
857-876. <https://doi.org/10.1007/s11218-021-09635-w>

- IMAZ, J. I. (2020). *Hezkuntzaren
Soziologia*. Udako Euskal Uniber-
tsitatea.

- KÜBLER-ROSS, E. (1992). *Los
niños y la muerte*. Luciérnaga.

- MARTÍNEZ, N. (2022ko maia-
tzaren 1a). Umeari traumarik
ez sortzeko bidea ez da heriotza
ezkutatzea, akonpainamendua egitea
baizik. *Argia aldizkaria*. [https://
www.argia.eus/argia-astekaria/2776/
naroa-martinez-psikopedagogoa](https://www.argia.eus/argia-astekaria/2776/naroa-martinez-psikopedagogoa)

- MÈLICH, J. C. (2003). Por una
Pedagogía de la finitud. *Aula de
Innovación Educativa*, 122, 39-40.

- RAMOS-PLA, A. eta CAMATS,

R. (2019). Consideraciones gene-
rales respecto a las necesidades de
practicar una pedagogía sobre la
finitud humana en la educación for-
mal. Estudio de caso. *Educare*, 55(1),
273-290.

- RODRÍGUEZ, P., HERRÁN, A.
eta CORTINA, M. (2012). Antece-
dentes de la Pedagogía de la Muerte
en España. *Enseñanza & Teaching*,
30(2), 175-195.

- RODRÍGUEZ, P., HERRÁN,
A. eta MIGUEL, V. (2020a). The
inclusion of death in the curriculum
of the Spanish Regions. *Compare: A
Journal of Comparative and Interna-
tional Education*.

- RODRÍGUEZ, P., HERRÁN, A.,
PÉREZ-BONET, G. eta SÁNCHEZ-
HUETE, J.C. (2020b). What do
teachers think of death education?
Death Studies, <https://doi.org/10.1080/007481187.2020.1817176>

- PEDRERO-GARCÍA, E. (2012).
*Educación para la salud y pedagogía
de la muerte*. (Tesis doctoral).

- POCH, C. eta HERRERO, O.
(2003). *La muerte y el duelo en el
contexto educativo: Reflexiones,
testimonios y actividades*. Paidós.

EKARPENAK II

HEZKUNTZA AKORDIOA

Francesc Colomé: “Aldaketek nahasmendua dakarte, baina ordaindu beharreko prezioa da”

EH Bilduk antolatutako Hezkuntza Konferentzian parte hartu zuen pasa den abenduan Francesc Colomé Montserrat katalanak Nuria Mora eta Juanjo Falcórekin batera. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berriaren testuinguruan, Kataluniako Hezkuntza Legea (LEC) sortzeko zergatiak, motiboak eta helburuak izan zituen hizpide.

Francesc Colomé Montse-
rretek ibilbide oparoa egin
du hezkuntza munduan eta
ardurako postuetan egon
izan da, besteak beste, ikuskaria,
estatu espainiarreko Hezkuntza
Ministerioko Lanbide Heziketako
zuzendari orokorra eta Generalita-
teko Hezkuntza Saileko Hezkuntza
Politiketako idazkaria izan da. Gaur
egun Katalunia Europa Fundazioko
zuzendaritza batzordeko kide da.
Kataluniako Hezkuntzarako Itun
Nazionala egiten aritu zen eta baita
Kataluniako Hezkuntza Legea ere.

**Zergatik erabaki zenuten Kataluniak
hezkuntza lege propioa behar zuela?
Eta zergatik bilatu zenute legea
egiteko kontsentsua?**

Duela 15 edo 16 urteko kontuak
dira. 2006-2007 ingurua aberastasun
handiko unea zen, krisiaren aurre-
ko garaia, eta mundua aldatzen ari
zela susmatzen genuen, eta, jakina,
hezkuntzak aldaketa itzelak beharko

zituela egoerara egokitzeko. Eta ez
aldaketa metodologikoak soilik, bai-
ta egiturazkoak ere. Sistema gero eta
dualagoa zen, Europatik kanpoko
migrazio etorrera izugarria zen eta
eskolatu egin behar ziren...

Egoera hartan bi planteamendu-
ren artean aukeratu behar genuen:
zeturrena kudeatu edo sistema aldatu
etorkizunari aurre egiteko. Guk erre-
formaren aldeko hautua egin genuen
garbi, batez ere egoera berriari aurre
egin nahi geniolako.

Gainera, aurretik Hezkuntzarako
Itun Nazionala egina genuen eragile
sozialean artean —ez zen alderdi
politikoen arteko ituna izan— eta
hainbat gai jorratu genituen: ikas-
tetxeen autonomia; zuzendaritza;
hezkuntza proiektuak; irakasleak,
irakaskuntza ikasketak eta irakas-
leen zeregina ikastetxean; udalen
parte-hartzea hezkuntza sisteman;
eta, jakina, sistema publikoaren eta
kontzertatuaren arteko dualtasuna.

Gai horiek landu genituen itunean,

eta horrek, modu naturalean lege bat
egitera gindaramatzen. Dekretuen
eta aginduen bidez gobernatu ordez,
gure eskubidea eta eginkizuna gure
hezkuntza sistema propioa egitea
zela uste genuen, gure beharretara
egokitutako sistema erabakitzea,
gure komunitatearen ezaugarriak
kontuan hartuko zituen eredia
lantzea, eta beraz, gure hezkuntza
politikak aurrera eramateko lege bat
izatea.

Nolako legea egin nahi zenuten?

Lege irekia egin nahi genuen, eta
hori hasieratik planteatu genuen. Le-
geak ekimenak eta aukera askotari-
koak sortzeko abagunea eman behar
zuen. Eta, gainera, alderdi politiko
desberdinentzat gobernagarria izan
behar zuen. Hau da, gobernu alda-
keta gertatzen baldin bazen —legea
bukatu genuenean pasa zen mo-
duan— eta eskuinagoko gobernu bat
osatzen baldin bazen, berme batzuen
barruan legea egokitzeko aukera



Francesc Colomé Kataluniako Generalitateko Hezkuntza sailburuorde ohia Kataluniako Hezkuntza Legeari eta hango prozesuari buruzko azalpenak ematen EH Bilduren Hezkuntza konferentzian.

izan zezan nahi genuen; eta ezker-
gokoa zen gobernu bat osatzen bal-
din bazen —azken urteetan gertatu
den moduan—, legea ezker-
ragoko ikuspegitik interpretatzeko aukera
egon zedin. Hau da, ez zegoen ixte-
ko borondaterik, irekitzekoa baizik,
gobernu desberdinek gobernatua
izan zedin.

Kataluniako Hezkuntza Legearen osagai nagusietako bat Hezkuntza Zerbitzu Katalana da. Zerk bultzatu zituzten zerbitzu hori konfiguratzeko?

Garai hartan gaur egun oraindik
mahai gainean dagoen gai bat
geneukan esku artean. Irtenbidea
eman nahi genion eta eredu horrekin
eman genion. Abiapuntua honakoa
zen: zein zen geneukan hezkuntza
sistemaren izaera? Sistema duala
nahi al genuen? Dualtasun horretan
eskola kontzertatuak bere kasara uz-
tea —bere ikasleak, bere eskaerak,
kontzertua ordaindu eta ahaztu— eta
publikoa elementu osagarri moduan
geratzea? Hori zen jende askok
defendatzen zuen eredua.

Beste askok eskola kontzertatua
irregularitasun egoera baten ondorioz
zegoela uste zuten, eta posible ba-
litz, eskola guztiak publikoak izango
liratekeela. Ideia horren aldekoek
progresiboki eskola kontzertatua
desagertzea defendatzen zuten.

Ez zitzaigun egokia iruditzen ez
bata ez bestea. Hornidura modu biak
izango zituen sistema bilatu nahi
genuen: publikoa eta diru publiko
sostengatua. Hori zen ideia, bi azpi-
sistemak bateratzea. Eta sistema hori
arauekin osatu nahi genuen, bakoit-
zak nahi zuena egin ez zezan.

Osasungintzako eredua geneukan
buruan, non Kataluniak bi ereduak
integratuak dituen. Medikarengana
joaten garenean, ez dakigu zerbi-
tzua kontzertatua edo publikoa den,
desberdintasunik ez dutelako eta
sistema oso integratua dagoelako.
Hori genuen buruan hezkuntzarako.
Halere, hezkuntzaren eta osasun-
gintzaren artean desberdintasun
handi bat dagoela onartu behar dut:
osasungintzak printzipioz ez duela
ideologiarik eta hezkuntzak bai. Eta
horrek pixka bat gehiago konplika-
tzen du.

Edozein modutan, guk sistema
egonkortu nahi genuen. Alde batetik,
kontzertatua sistemaren parte egin,
merkatuko elementu izan ordez sis-
teman parte hartuarazi, eta bestetik
sistema publikoari bere eskaintza
eta kalitatea hobetzeko bitartekoak
eman.

**Hezkuntza sistema katalaren aldeko
diskurtso horrek kritikak jaso izan
ditu hainbat sindikaturen eta
eragileren aldetik eta kosta egiten**

“Arauek dituen sistema batean bateratu ditugu publikoa eta kontzertatua Hezkuntza Zerbitzu Katalanaren bitartez”

zaie eskema dualetik ateratzea. Zer diozu horren aurrean?

Estutasun handiko garaietan gaude
eta ezinbestekoa da mudantzak eta
aldaketak egitea. Normala da alda-
keten aurrean erresistentziak egotea,
ongi hartutako ohiturak ditugulako
eta ukitzen zaizkigunean eutsi egiten
diegulako. Baina aldaketa eta erre-
forma askoko garaiak datozkigu eta
nahasmendua sortuko dute irakas-
leengan eta aldaketak ezarri behar
dituztenengan. Eta hori nahitaez
ordaindu behar den prezioa da.

Hizkuntzaren afera

Colomé argi dio hizkuntzaren
afera arazo linguistiko faltsua
dela, politikoa baita benetako
arazoa. “Katalunian hizkuntzaren
arazoa kanpo arazo bat da, kan-
potik sortutako edo bultzatutako
gatazka da. Hizkuntza bereizga-
rri indartsuegia da estatu erabat
zentralista eta uniformista batek
onartu dezan. Komunitate baten
nortasunaren osagai indartsue-
netako bat da hizkuntza, eta be-
raz, komunitate baten nortasuna
eraso nahi baldin baduzu, haren
hizkuntza erasotzen duzu”.

Halere, katalanak duen onarpen
soziala oso altua da, Colomé
baieztatzen duenez. “Eta argi
eduki behar dugu hizkuntzaren
erantzukizuna ez dela eskola-
rena bakarrik, eskolan katalana
ikasi duten ikasleak kalera irten
eta han katalanez hitz egin eta ez
baldin badiete ulertzen, alferrik
da. Gizarte osoaren erantzukizu-
na da”.

AHALDUNTZE ESKOLA

YOGA ESKOLAN

Eseri eta hartu arnasa

Lau hitz nahikoa izaten dira gelako tentsioa jaisteko: “Eseri eta hartu arnasa” esatearekin batera, baretu egiten dira ikasleak. Yogak norbere barnera bidaia egiteko, geure buruarekin egoten ikasteko eta zentratzeko aukera ematen du. Eskoletan yoga saioak eskaintzen dituzte Kiran Shanti elkarteak kideek.

Hendaian du egoitza Kiran Shanti yoga eskolak. Beatriz Sanz eskolaren sortzailea eta zuzendaria da eta hark azaldu du yogara hurbiltzeko, hazia jartzeko, balio dutela saioek. Sanskrito hizkuntzan “shanti”-k bakea esan nahi du eta “kiran”-ek eguzki izpia. Beraz, bakea eta argitasuna uztartzen ditu eskolaren izenak. Hendaian, Biriatur, Urruñan, Ziburun, Donibane Lohizunen... egin dituzte saioak. Sanzek eman du horien nondik norako berri.

Yoga saioak eskaintzen ari zarete eskoletan 2015. urtetik. Nondik sortu zen behar hori?

Françoise Holland presidentaren agindupean lege berria onartu zuen Frantziako gobernuak. Horren arabera, eskolan erritmo aldaketa egin zen eta normalean curriculumetik kanpo gelditzen diren gaiak sartu nahi izan zituzten eskola ordutan. Irakasleek ezin zuten hori guztia euren gain hartu eta eskolaz kanpo-ko elkarteei deialdia luzatu zieten interesgarriak izan zitezkeen gaiak lantzen hasteko. Deialdi horretara aurkeztu ginen eta harrera oso ona izan genuen, yoga oso erakargarria baita haurrentzat. Gerora, Emma-

nuel Macron presidentarekin bertan behera geratu zen egitasmoa eta orain ez dute finantziatzen. Beraz, eskola bakoitzak erabakitzen du dirua baldin badu, egin ala ez.

Zer adinetatik aurrera aritzen zarete?

5 urtetik 12 urtera aritzen gara normalean, baina laster 3 eta 4 urtekoekin ere saioak egingo ditugu. Saioak adinaren arabera egokitzen ditugu eta jolasaren bidez ikasten dute. Txikiekin posturen izenak ani-

malien izenak izaten dira, adibidez. Gorputzaren kontzientzia hartzea eta haurren arretari eustea da helburua, eta arnasketak eta posturak egiten ditugu baina ipuinak kontatuz. Ipuinak berak eramaten gaitu postura batetik bestera.

Zertan laguntzen die yogak haurrei?

Ez dakit zertan laguntzen dien, baina bai zer lortu nahi dugun: euren buruarekiko ezagutza izan dezaten lortu nahi dugu. Emozioak ere





Beatriz Sanz haurren yoga saioa gidatzen.

lantzen ditugu eta azaltzen diegu horiek ez direla ez onak ez txarrak. Saioetan oso dinamikoak diren jolasak egiten ditugu eta bat-batean lasaitasuna dator. Entrenamendu baten modukoa da zeren eskolan ere hori gertatzen da: jolasgariaian asko mugitzen dira eta bat-batean gelara itzuli eta matematika klaserako eseri behar dute. Eserita eta isilik egon behar dute. Aldaketa hori egitea ez da erraza baina arnasketaren bidez gure arreta barrurantz eraman dezakegu pixkanaka. Eta txikitatik ikasiz gero, handitan horrela egitea askoz ere errazagoa izango da.

Interesgarria izango litzateke, beraz, yoga ikasgeletara eramatea.

Hori da gure ametsa. Nik uste dut gero eta irakasle gehiago ari direla formazioa jasotzen. Euren buruarantz ari dira, baina zuretzat ona den zerbait aurkitzen duzunean, lanean ere erabiliko duzu. Teknika sinpleak dira: arnasketa kontrolatzea eta nola zauden begiratzea. Sentitzea eta barrura begiratzea.

Nola nago? Nola egon nahi dut? Zer egin dezaket hobeto egoteko? Hiru galdera dira, besterik ez. Kontzientzia hartzea da. Irakasleak yogara gero eta gehiago hurbilduko direla espero dut. Izan ere, aldaketa egongo bada, behetik gorakoa izango da. Irakasleentzat interesgarria bada, bakoitzak bere klasean landuko du eta emaitza ona baldin bada, zabaldu egingo da. Eta noizbait beharrezkoa bihurtuko al da egunero klaseak hasi aurretik hamar minutuz yoga egitea? Zergatik ez? Beste kultura batzuetan egiten da eta hori guztia hemen zabaltzen ari da pixkanaka.

Saioaren hasieratik amaierara aldaketarik nabaritzen al duzue haurrengan? Lasaitzen al dira?

Ez dugu bilatzen umeak lasaitzea, hori gurasoen helburua izaten da. Yoga ez da magia, ez ditu umeak aldatuko. Ume bat urduria baldin bada, agian beti urduria izango da. Yogan ikasiko duena da urduria dela eta hori nola kudea dezakeen. Saio batean une oso dinamikoak eta

une oso lasaiak lantzen ditugu eta trantsizio hori ongi egiten ikasten dugu. Zertarako? Bada bizitzan edozein egoera suertatzen delarik ere, gaitasun hori izateko. Bestalde, haien kezkek eta galderak saioan integratzen ditut eta gauzak kon-tatzeko eta eztabaidatzeko aukera izaten dute.

Yoga saioak filosofia saio bihurtzen dira, beraz.

Hori da. Yogak ere badu bere alde filosofikoa. Nik bilatzen dudana leku neutroa izatea da eta norberak nahi edo behar duena epaiketarik gabe esateko aukera izatea. Adibidez, ezin dute edozein tokitan esan anaia txikia jo dutenean ongi sentitu direla. Baina gure saioetan horretarako aukera izaten dute eta gero egoera horiek aztertzen ditugu. Garatzen eta euren ondorioak ateratzeko gaitasuna lantzen lagundu nahi diegu. Edozein gairi buruz aritzeko galderak egiten ditugu eta erantzun guztiak onak dira. Niretzat euren iritziak oso garrantzitsuak dira, ez dira txorakeriak.

GALDEIDAZU

ZER DA EUSLE EKIMEN PEDAGOGIKOA?

Euskal Autonomia Erkidegoan 2003-2004 ikasturtean hasi ziren ikasle etorkinei arreta emateko programak eta planak. Hala, ikasturte horretan sortu ziren Hizkuntza Indartze-ko Irakasleak (HIPI), eskolatze berantiarreko ikasleen gizarte- eta hizkuntza-egokitzapenari erantzuna emateko.

Ikasturtean zehar eskolatzen diren ikasleen kopurua gora joan da azken urteetan. Erronka handia da gure hezkuntza sistemarako eta bereziki eskoletarako. Nahiz eta era bateko edo besteko proposamenak aurrera eraman, egia da, lortutako emaitzak ez direla espero zirenak izan. Ikus *Atzerriar jatorriko eskolatzea, EAEko eskola sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak* (Eusko Jaurlaritza, 2018). EAEko 2017ko Diagnostiko Ebaluazioari buruzko txostenak dio *“ikasle etorkin ia guztiek lortzen dituzten emaitzak dira, gaitasun guztietan, bertako ikasleenak baino nabarmen okerragoak”* (ISEI-IVEI, 2018).

Eskola inklusiboa garatzeko esparru-planak (2019-2022) zera dio: *“Ikasle guztiek beren gaitasun pertsonalak eta bizitzarako konpetentziak ahalik eta gehien garatzea du helburu, irteera profilean aurrei-*



kusitako oinarrizko konpetentziak lortze aldera” (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Beraz, etorri berrien eta etorkinen seme-alaben gaitasunak ahalik eta gehien garatu behar dira. Eta hori, beste era bateko ikuspegi metodologikoekin eta baliabideekin lor daiteke.

Eusle ekimena, ikasle etorri berriei erantzuteko beste modu bat

Eusle hezkuntza sisteman gure komunikazio-hizkuntza jakin gabe sartzen diren ikasle etorri berriei arreta emateko berariaz sortutako ekimen pedagogikoa da. Bi urteko epean ikaslearen egokitzapena, alderdi afektiboa, sozializazioa eta hizkuntzaren garapena lantzen dira. Hori lortzeko, kulturartekotasun ikuspuntutik erantzun koherente eta global bat ematen da ikastetxetik.

2019-2020 ikasturtean Eusle ekimenaren pilotajea martxan jarri zen lau ikastetxerekin. Pilotaje horretan, ikasleen hizkuntza maila eta sozializazio prozesua baloratu ziren. Pilotajearen ondoren, 2021-22 ikasturtean baldintzak betetzen zituzten ikastetxeetara zabaldu zen ekimena. Gaur egun ikastetxeen eta gelen kopurua gorantz doa, aniztasuna erakutsiz. Baina, ekimena bizirik dago: sortu zenetik gaur

EUSLE TALDE ERAGILEA



egunera eginez ikasi egin da eta horrek aukera eman du egoera berriari aurre egiteko. Horrela, ahuleziak hobetuz ikasleei ahalik eta harrera pertsonalizatuena emateko.

Nola garatzen da Eusle ikastetxeetan?

Eusle ekimeneko baldintzak betetzen dituzten ikastetxeetan Eusle gela bat sortzen da. Gela horrek berezko espazioa eta irakaslea izango ditu. *Eusle programaren marko kontzeptuala* (Eusko Jaurlaritza, 2022).

Eusle gelak bere ordutegia eta baliabideak ditu ikaslearen sozializazioari garrantzia emanez. Askotan, segregazio hitza erabili da horrelako gela edo ikastetxeei buruz hitz egitean. Egia da, ikasleak tarte batean erreferentzia gelatik kanpo daudela eta besteek egiten dituzten lanetatik at. Baina, saio guztietan besteekin batera gelan egoteak sozializazioa bermatzen al du? Ikasketak hizkuntza ezezagun batean egiteak, irakaskuntza esplizitua eta egokitua izan gabe, ikasle horien arrakasta akademikoa bermatuko al du? Eta, euskararen jabeakuntza? Hizkuntza bera ez da


beharrezkoa bere kideekin sozializazio hori bermatzeko?

Atzerriko hizkuntza bat ikas-terakoan maila batetik bestera pasatzeko 200 ordu inguru behar dira. Gure ikasleei bi ikasturteko tarte ematen zaie astean 4-5 orduz euskara erakutsiz. Eta, askotan saio horiek curriculuma ikasteko edo egokitzen direnak egiteko erabili izan dira. Kontuan izanik euskararen irakaskuntzari ematen zaion tarte murriztua, zer ikasten dute ezagutzak euskaraz baldin badira? Zer ulertzen dute?

Curriculum arrakastarako presatzen ditugu? Bertokoen aukera berdina dute? Eta, nola sentitzen dira egoera horren aurrean? Ikaslearen ongizatea ikasketetarako giltza izan daiteke.

Euslek baldintza hau du abiapuntu: hizkuntza ikasteko berdinen arteko harreman- eta lankidetzat-estuingurua beharrezkoa da. Eta horrekin batera eskolako komunikazio-hizkuntza ikasteko lan intentsiboa eta espezifikoa, erabileran oinarritua. Egia da, erreferentzia gelan elkarreraginaren bidez harremanetarako oinarritzko hizkuntza hori bideratzen dela; euskararen

Eusle hezkuntza sisteman gure komunikazio hizkuntza jakin gabe sartzen diren ikasle etorri berriei arreta emateko berariaz sortutako ekimen pedagogikoa da.



Eusle gela babesgune bihurtzen da ikasleari bere osotasunean erantzuna eman nahian, Eusle irakaslearen bidez. Zubi lana egiten du estrategiak eskainiz.

lanketa espezifikoa eta intentsiboa zerotik hasten direnentzat. Gainera, ko ikaskideen abiapuntua altuagoa denean eta curriculum eskakizunak maila altuagoa eskatzen duenean, ordea, hizkuntza beraren kudeaketa oso zaila egiten zaie irakasleei. Erronken artean, euskararen irakaskuntzaz gain, beste erronka batzuekin egiten dute topo: eskolatze ez jarraia edo eskolatu gabekoak, familia kontuak, dolua... Eusle gela babesgune bihurtzen da ikasleari bere osotasunean erantzuna eman nahian, Eusle irakaslearen

bidez. Erreferentzia gelaren eta ikastetxearen arteko bitartekaria da Eusle irakaslea. Zubi lana egiten du eskolatze prozesuan aurrera egiteko estrategiak ikasleari eskainiz.

Irakasle batzuen adierazpenak: *“Irakasleak seguru sentitzen dira. Ikasten ari direla. Erreferentzia gelara pozik doaz ikasitakoa erakutsi nahian”*; *“Batzuk, erreferentzia gelakoa baino euskara maila altuagoa dute”*; *“Etorri nahi dute, gelakoa ulertzeko”*... *“Gasteizko eskola batean irakasleak kezkatuta zeuden ikasle batekin. Isilik pasatu zuen iazko ikasturte osoa bere erreferentzia gelan. Eusle irakaslearekin, ordea, babesa sentitzen zuen eta hitz egiteko tarte eskaintzean, ikasleak euskaraz hitz egiteko gaitasuna zuela eta Eusle gelako dinamika jarraitzeko gai zela ikusi genuen. 2022ko abenduan A2ko frogara pasatu diogu eta gairatu du”*.

Adierazpen gehienak onak dira, baina Euslek ez ditu ikasle horien behar guztiak betetzen eta toki-ko erantzuna ematen saiatzen da. Batzuentzat bi urteko epea nahikoa da euskararen oinarritzko maila lortzeko, baina beste batzuek denbora gehiago behar dute bestelako

zailtasunak dituztelako. Ekime-
nean, ikaslearen egoera aztertuz eta batzordearen oniritziarekin, beste ikasturte bat egon daitezke, beti bere aurrerapenaren jarraipena baloraturaz.

Azken bi urte hauetan Eusle gela alfabetatu gabeko edo behar ez den beste alfabetatutako ikasleak daude. Horregatik, ikasle horien alfabetatze prozesua da eskoletako erronka nagusia. Nork egingo du betebeharreko edo oinarritzko prozesu hori? Noren ardura da? Nola erakusten zaie irakurtzen eta idazten euskaraz Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrerako ikasleei? Kezka handia dago eta Eusle irakasleak ere horretan inplikaturik daude. Galdera asko daude, gai mamitsua da eta, agian, ez daukagu galdera horien erantzun zuzenik, orain arteko erabakiak eta esku-hartzeak ez dutelako eragin handirik izan ikasle horiengan. Argi daukaguna zera da: kultuarterotasunari balioa emanez eta euskaldun egiten gaituen hizkuntza indartuz, Eusle ekimena gure gizartean bizi den errealitateari erantzuna emateko sortu dela eta datozen urteetan horretan ekingo diogula.



ARGITALPENAK



EGUZKI-SISTEMA

Rosie Dickins - Carmen Saldana

ELKAR

Aireratu gaitezen gure planetatik kanpora, eta ezagutu dezagun eguzki-sistema! Ezagutu eguzkia, haren inguruan dabilen planetak, ilargiak, asteroideak eta baita eguzki-sistematik harago dagoena ere. Hamaika datu bitxi eta jakingarri gehiago aurkituko dituzu leihatiladun liburu interesgarri honetan.



ASKE IZAN KOLORETAN

Steilas sindikatua - Dom Campistron

STEILAS SINDIKATUA

Genero estereotipoak deseraikitze helburuz, Haur Hezkuntza lantzeko liburua da. Euri, Maixa, Xole, Gexan eta Mixel lagun talde bat dira, eta haien gorputzak eta identitateak modu librean bizi dituzte, eta bizitzeko beste modu bat badela erakutsi nahi digute. Ondoan, Zangaluzeak dituzte, araua irudikatzen duten pertsonaiak.



ESKOLA MODERNOA

Santi Angulo, Francisco Ferrer Guardia

UEU

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran bizi zen egoera sozioekonomikotik eta politikotik abiatuta, Francisco Ferrer Guardiaren pentsamendu askean oinarritu zuen bere asmoa eta, besteak beste, sexuen eta klase sozialen hezkidetzaren bidezko irakaskuntza sortzen saiatu zen. Santi Angulok euskaratu du haren lana.



JAKIN 253

Hainbaten artean

JAKIN

2022ko kultur balantzea egin dute hainbat pertsonak: Aritz Ibañez Lussarreta, Amaia Alvarez Uribe, Itziar Ugarte Irizar, Txakur Gorria, Patxi Gallego, Dani Fano, Axi, Ane Zabala, Irati Elorrieta, Josevisky... horien artean. Liburuak sailean, 2021eko euskal liburugintza aztertu du Xabier Eizagirre Gesalagak.



IZAR SALTZAILEA

Eneko Bidegain - Anne Baskaran

IKAS

Xubani dirua irabazteko ideia bat bururatu zaio: izarrak biltzea eta horiek saltzea. Baina hasierako lilara eta arrakasta pasa ondoren, bere ekintzek ingurumenarengan eta pertsonengan ondorioak dituztela ikusiko du. Zoriona, dirua, erresistentzia edota zuzentasuna lantzeko aukera ematen du liburuak.



BIZIPOZA 3

Hainbaten artean


BIZIPOZA KULTUR ELKARTEA

Hirugarren CD-DVDa kaleratu du Bizipoza elkarteak. Hamabi abesti eta bideoklip sortu dituzte eta liburuxkan, Bizipoza osatzen duten hamaika elkarten aurkezpen testua, abestiaren letra eta sortzaileen eta elkarteetako kideen talde argazkiak bildu dituzte. Guztia, elkarten mezua gizarteratzeko helburuz.

Umea lättsakeren biter sig och zornstusar sig bitt ett, ett, borden, a beensik berögnastens dillute garasosik. Omna emen näli ilanen d raski, zornstus bär dillute eis biltkan a halle eis ausera gellen ita Berst, hantat erabaki garasos enku dande, Horden arsten, beste hauna zeln fiktuzint erdelat eisokulake duren auverlöste. Eta i inuergarvika, halsten, beensik. ()



Iñaki Eizmendi euskara aholkularia, *Eranafarroa.eus*-eko bideo propio batean.



Webgunea:

www.eranafarroa.eus

Atalak:

Etxean, eskolan, eskolaz kanpo.

Baliabideak:

Eskolaz kanpokoak; musika; zinema eta marrazki bizidunak; Appak eta jostailuak; ipuinak eta literatura; jolasa; hezkuntza eta gurasoentzako aholkuak.

etxean, eskolan eta kalean edo lagunartean. Ahozko erregistro ezberdin horiei berebiziko garrantzia eman behar zaie egunerokoan oso beharrezkoak ditugulako. Horretarako, besteak beste, haurrentzat erakargarriak diren jardueratan eta egoeratan euskarak ahalik eta presentzia handiena izatea komeni da”.

12 urteko bitarteko haurren euskararen erabileran egiteko helburuarekin sortu zuten Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek elkarlanean *Eranafarroa.eus* webgunea 2017ko azaroan. “Nafarroa osorako proiektu bat behar genuen —azaldu dio Chamorrok **Hik Hasiri**—, gune sozio-linguistikoaren arabera abiapuntu ezberdina izanik ere, guztientzat helmuga bera izanen zuena: euskararen erabilera. Horixe da hain zuzen ere helburu nagusia, alegia, haurren euskararen erabileran eragitea, eta horretarako, zalanztarik gabe, gaitasunean ere eragin beharra dago”.

Hori dela eta, 12 urte bitarteko haurren sozializazioan eragiten duten esparru nagusietarako edukiak proposatzen dituzte, eskolan, eskolaz kanpo edota etxean baliatzekoak. Hiru eremu horietan

hausnartzeko eta jarrera aldatzeko gakoak ematen dizkiete gurasoei, esate baterako, etxean irakurzaletasuna sustatzeko ideiak; etxeko lanetan laguntzekoak, euskaraz hazteko gakoak... “Gurasoei adierazi nahi diegu, euskaldunak izan nahiz ez izan, asko egin dezaketela beren alaba-semeek aurrera egin dezaten euskararen ikaskuntza prozesuan, eta horretarako baliabideak eman nahi dizkiegu. Jarrera aktiboa sustatu nahi dugu denen artean”.

Jolasak, filmak, Appak... klik batera

Eskoletan ere badu lekua *Eranafarroa*ak, batetik webgunean bildutako baliabideak eta materialak interesgarriak izan daitezkeelako euskara sustatzeko lanean diharduten Euskal Herri osoko hezitzaileentzat. Webguneak haurrei zuzenduriko euskarazko musika, zinema, marrazki bizidunak, jolas bildumak eta abar luze bat biltzen ditu. Baina, batez ere, zubi lana egiteko eskatzen diete euskara teknikariek ikastetxeei: “Eskolak direnez familiekin harreman zuzena dutenak, tutoreei eskatzen diegu gurasoei *Eranafarroa.eus*-en berri emateko. Webgunean sartzeko eskatzen diegu eta beraiekin

batera hor bilduta dagoen guztia aztertzeko”.

Eranafarroa baliabide-banku bat da eta nagusiki beste batzuek egindako lana bildu eta sailkatzen du. Une honetan, Baliabideen atalak zortzi multzo ditu: Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza, Musika, Zinea eta marrazki bizidunak, Appak eta jostailuak, Ipuinak eta literatura, Jolasa, Hezkuntza eta Gurasoentzako aholkuak. Horietako bakoitzean azpi-atalak daude. Horiez gain, haurrentzako euskarazko jardueren Nafarroako agendarik osatuena du webguneak. “Horregatik, sekulako baliabidea da familientzat —dio Chamorrok—. Filmak, kantu-zerrendak, bideo-ipuinak, Appak, agenda, udalekuen informazioa, jolasak... denetik dago, txukun eta eroso, klik batera”. Poliki-poliki ekoizpen propioak ari da sortzen eranafarroa, *Jolasak eta Solasak* da horietako atal bat.

Artikulu berri bat argitaratzen dute ostegunero eta baliabideen atala ere aldian-aldian berritzen dute. Webgunera zuzenean sartuz edo buletinera edo Youtube kanalera harpidetuz jarraitu daiteke *Eranafarroa* eta baita sare sozialen bidez ere.

ATZEKO ATETIK



PASAIAREN ARRASTOA

UNAX EGIGUREN ETA INTZA CASAMAJOU BAIONAKO BERNAT ETXEPARE LIZEOKO TERMINALEKO IKASLEAK

Iparaldeko bi ikasle gara, Xiberoko Intza Casamajou eta Lapurdiko Unax Egiguren. Bata Ipar Euskal Herriko ekialdekoa eta bestea mendebaldekoa izanik, ibilbide ezberdin bat egin dugu. Intza Sohütako ikastolatik eta Manex Erdozaintzi Etxart Kolegiotik pasatu da, Unax Hendaiaiko Gure ikastolatik eta Piarres Lartzabal Kolegiotik, eta elkar, Baionako Bernat Etxepare Lizeoan ezagutu dugu. Azken urtea dugunez lizeoan, urte bukaeran baxoko (selektibitatea) azterketa egin beharko dugu.

Nahiz eta ikastola ezberdinetatik igaro, ikastolak antzeko gauzak eman dizkigu. Gurasoen hautuz, ikastolan sartu ginen txikiak ginelarik, gure ikasketak euskaraz egiteko aukera emanez. Intzaren kasuan, xiberotarra da beraien etxean baliatzen duten euskalkia eta ikastolak euskara batua ere eman dio. Manexekilan komunikatzeko bide bat. Txikitatik sartu ginenez, orain ditugu lagun gehienak, gure

bizitzako lehen lagun bezala kontsidera ditzakegu, nahiz eta batzuk gure bide berberean ez jarraitu, gure iduriko ikastolak eman digun gauza hoberenetako bat izan da.

Horrez gain, irakasleekin ere beti hartu-eman goxoekin ibili gara. Harreman onak aipatuz, aipatzekoa da, gure lizeoan elkartasun handi bat badela hiru ikasturte ezberdinen artean, denak elkar kolaboratzen dugu.

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarra izanik, barnetegiaren beharra dugu, xiberotar eta baxenabartar gehiengoari astea hor pasatzeko aukera emanez, eguneroko bizpahiru orduko bideak ekiditeko. Hori ez da batere oztopo bat izan gure ibilbidean, aberastasun handia da, denak elkartzen baikaitu.

Euskaraz ikasteko aukera aipatu dugu hastapenetik, baina hortik haratago Euskal Herria bizitzeko aukera eman digu ikastolak, lurralde ezberdinen arteko trukatetako bizi izan ditugu gure ikasle

ibilbidean, eta azken urte honetan ere Iparra-Hegoa egitasmoan parte hartuko dugu, ezagutzak zabalduz eta zubiak eraikiz. Iparraldean euskara hizkuntza ofiziala ez dela gauza jakina da, BAXOA EUSKARAZ nahi dugu! Ikastolak euskara eman digu, bai, baina euskaraz ikasi ondotik baxoa frantsesez egitera behartzen gaituzte. Seaskak etenik gabeko borroka bat darama azterketak euskaraz lortzeko. Maleruski, orain, 2023an, hizkuntz zapalketa hau jasan behar dugu, eta lerro hauen bidez deia luzatu nahi diogu euskal gizarteari aldarrikapen hau bere egin dezan. Herri gisako erantzuna da afera honek behar duena. Elkarrekin azkartzen gira.

Hiru urte genituela hasi genuen Seaskako bidea, ikastolatik kolegiara, eta amaiera aurten lizeoan. Zerbait bereziaren parte izatea sentiarazten gaitu, ez gara nehor baino gehiago, ez eta gutxiago ere, baina izan, bagira zerbait, gure baitan daramagu, eta eramanen dugu.

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA

Hazi Hezi

Eskuratu
urtean 4 ale
20 eurotan

OSPATZEKO GARAIA DA!

10 urte

www.hikhasi.eus

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



Elkarrekin hazten

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 13TIK 24RA

www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN